

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 21a / 623. zenbakia

## Desagertzeko zorian

Arrasateko kiliki eta erraldoien konpartsa jende beharrean dago



ORAIN ETA HEMEN: HELDU PROGRAMA /8 • KIROLA: KENCI ARRASATE, IGOERA FASEAN /11




ARGAZKIA: ARRASATEKO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA.

PROFESIONAL LIBERALEN GIDA /23


**GRUPO RK UZ**

1950-2003

*Zure etxea da*



Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**




Araba Etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



Andramari auzunea 1  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**



## KALEINKESTA/ Herrixe garbi ala zikin ikusten dozu?



**FELIPE GÓMEZ**  
Langillie



**SYLVIE SCHIETTEKATH**  
Langillie




**ESTIBALIZ SAN JOSÉ**  
Langillie



**IBAI URIARTE**  
Ikaslie



**JESSICA AGÜERO**  
Ikaslie



**ROMAN LÓPEZ**  
Jubilaue

Aste bukaeretan oso zikin egoten da, baiñe egun horreittan normala da. Aste barruen, barriz, garbixago egoten da. Kulpie jentiena da, papelak eta bestelakuek lurrera botaten dittu-eta.

Konparetan dozun herri-xaren arabera, garbi edo zikin dauela esan neike. Mondraguera heldu nitzenien oso zikin ikusi neuen. Seme-alabei zaborrontzi-xek ibiltten erakutsi dutzet.

Leku batzuk beste batzuk baino zikiñago dauz. Garbitzaille batzuk lasai ibilliko die, baiñe kulpa haundixena jentiena da. Lurre oso zikin dau, baiñe errekie gero eta garbixago dau.

Errekie, behintzet, kristo bat egindde dau, baiñe herrixe ez dot zikin ikusten. Orokorrien, herritarrok gauzak lurrera botateko ohiturie daukogu, eta ez gauz kontzientziaute.

Nik uste dot herrixe orokorrien garbi dauela, ez dot oso zikin ikusten. Baiñe egixe da gaztiok gauzak lurrera botaten dittugula. Eta errekie bera be ez dau bat be garbi.

Herrixe oso zikin dau eta oso konponbide gatxa dauko. Txakur kakak ez dittu iñork jasoten, eta lurra eta hormak oso zikin dauz. Mondrague Gipuzkoako herri zikiñenetakue da.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK BIDE-SEINALEA LURREAN** Orain dela hilabete batzuk, Eroski parean dagoen bide-seinalea jausi egin zen. Ez dakigu auto batek jo ote zuen edo haizeak bota zuen, baina ordutik hona ez du inork jaso, ezta beste bide-seinale bategatik ordezkatu. Irakurle baten esanetan, komeniko litzateke berriro jartzea eta kanpotik herri-  
ra datozeinei ongietorri egokia egitea.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN/9

KULTURA /13

ZAHARRAK /17

### Kasinoaren etorkizuna

Kasinoko egoitza zaharra laster itxi egingo dute, eta egoitza berriarekin arazoak dituzte.

### Herri Gain-en urteurrena

Herri Gain gastronomia elkarteak 25 urte bete ditu. Egitarau mardula antolatu dute.

### Bixente Azkarate

Bixente Azkarate-ri elkarrizketa egin diogu. Herriaren alde lan handia egin du Bixentek.

## ASTEKO DATUA

# 18

### URTE BETE DITU ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSAK

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsak 18 urte bete ditu. Zoritarrez, une honetan errelebu faltan daude. Konpartsan lagun gehiago elkartzan badira, beste horrenbeste urte egingo ditu.

## BESTE EKESANA

**“Niretako telebistan egiten dudana jateko lana da. Hala ikusten dut, eta penagarria da ze izan zitekeen lan sortzailea eta polit askoa baina hara joan eta egiten duzuna da Fagorrera doana egiten duenak: hozkailuak. Nik neuk, ahal banu, ETBri goitik beherako astindua emango nioke, rri-rra! Telebistan, sortu beharrean kopiatu egiten da eta horri erabat absurdoa deritzot. ETB-1 katea publikoa da eta euskaraz izanda, ez daukagu zertan audientziari begira egon, baina hor goian daudenak egunero-egunero audientzietan begira daude, beste telebista kateetatik datorrena kopia eta kopia, eta gaizki gainera. Negargarria da. Guk geurea sortu beharrean eta gero saldu, guztiz kontrakoa egiten da”.**

ASIER ALTUNA  
PUTZ/03-03-15

## HERRITARREN BERBAK/ Itziar Ezpeleta



### Udaberria heldu da

**U**daberria heldu zaigu! Indarrez, koloretsu, argi... Negua atzean lo gelditu da. Merezi du begiak altxatzea. Urtero udaberria heltzen den arren, urtero txundituta gelditzen gara gure naturak eskaintzen digun ikuskizunarekin. Elizak garai horretan Garizuma ospatzen du eta Garizumako aste handia Aste Santua da. Natura garenez guk ere gure eskuetan duguna egin behar dugu udaberria gure bizitzara hel dadin. Indarberri gaitzen, egun lasaiak datoz, bakoitzak ahal duen hobeto aprobeatza ditzala.

Baina, aurtan, gertaera batek astindu egin gaitu. Egunkariaren itxieraren ganean ari naiz. Zaragozako lagun batek deitu zidan, kezkatuta, gure egoerarengatik galdezka. Gure egoera zaila dela esan nion. Herri honetan kolore askotakoak bizi gara, baina denok ama berekoak gara, eta ez dago munduan

indarrik isildu egingo gaituenik. Udaberria heldu da, seguru asko haurdunaldi berri baten aurrean gaude. Erditze horrek denon beharra dauka, konpromisoak har ditzagun, bakoitzak bere neurrian. Ziur nago eutsiko diogula eta indarberrituta gainera.

Udaberria! *Goienkaria*-ra helduko da? Herritarren iritzi eta ikuspuntu berriak, banaka-banaka aurpegi berriak ikusten ditugu. Ea jende gehiago animatzen den euren ikuspuntuak agertzen. Denontzat

aberasgarria izango da. Ea bizirik egongo den eta gure kezka agertzeko lekua lortzen dugun, ilusioak kontatzeko eta komunikatzeko. Agian, gure arteko hartu emanak hobetu egingo ditugu eta gure artean hobeto konpontzeko lehenengo pausoa izango da. Besteen iritziak entzun, jende berria ezagutu eta Udaberriak gainontzeko pausoak emango ditu. Utz ditzagun gure ateak zabalik haize berriak sar daitezten.

**“Herri honetan kolore askotakoak bizi gara, baina denok ama berekoak gara, eta ez gaitu inork isilduko”**

# Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran  
ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai  
MAKETAZIOA  
Alex Azkarate  
ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza  
ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berebizbar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Julen Aranguren  
LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88  
ISSN  
0214-4654  
TIRADA  
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 21**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39
- ZAPATUA, 22**  
Amezua, Santa Marina 32. ... 943 79 09 74
- DOMEKA, 23**  
Zabala, Zarugalde 42. .... 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 24**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09
- MARTITZENA, 25**  
Español, Maala 31. .... 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 26**  
Azkoaga, Ferrerías 5. .... 943 79 15 15
- EGUENA, 27**  
Azkoaga, Iturriotz 33. .... 943 79 79 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00  
Igalatorioa. .... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak. .... 943 79 39 00  
Emakumeak. .... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea ..... 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria. .... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelohenetik  
egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa
- Arrasate**  
Astelohenetik  
egubakoitzera. .... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. .... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
  - Espezialitateak ..... 943 03 53 11
  - Ikuskatzailea. .... 943 03 52 52
  - Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44
- ERTZAINZA**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa. .... 900 40 05 23  
..... 943-79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA. .... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. .... 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Joan parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>San Andres eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)
<b>Domeka</b> 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	<b>Domeka</b> 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Teresa eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)
<b>Domeka</b> 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	<b>Domeka</b> 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Marinako eliza</b> Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
<b>Domeka</b> 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	<b>Domeka</b> 12:00 (gaztelaniaz)

**OHARRAK**

**YOGA ETA MASAJEA**  
Arrasateko Yoga elkarteak hastapeneko Yoga eta Masaje ikastaroak antolatu ditu. Masaje ikastaroa martxoaren 31n hasiko da eta Yoga ikastaroa, apirilaren 2an. Informazio zabalagoa gura baduzu, deitu 943 79 20 85 edo 943 79 66 98 telefonoetara.

**BATASUNAREN ALDE**  
Bihar, zapatua, AuBk Batasunaren aldeko manifestazioa antolatu du. 15:45ean autobusak irtego dira Arrasatek, Garibaitik. Izena eman Irati tabernan.

**ZATIKAKO PLANA**  
Astelheanean, hilaren 24an, Debagoieneko Lurraldearen Zatikako Plana aurkeztuko dute. Udaleko osoko bilkuren aretoan egingo dute, 19:00etan, eta Jose Miguel Toledo arkitektoa izango da hizlari.

**KORRIKAKO MATERIALA**  
Gaur, egubakoitza, Korrika-ko materiala salduko dute Seber Altuben, 18:00etan.

**DETRITUS TEATRUS**  
Gaur, egubakoitza, Detritus Teatrus taldeak *Las punkis también lloran* antzezlan eskainiko du Iamai kafetegian, 00:00etan. Ikuskizuna doan izango da.

**AEDrenAGENDA**

**KULTUR ERROTA**  
Gaur, egubakoitza, Zarauzko Bihar Berriz taldearen kontzertua Amaiak hall-ean, 22:30ean. AEDk, Kultur Errotak eta Korrika Kulturalak antolatuta.

**'EGUNKARIA'-REN ALDE**  
Egunkaria Aurrera herri batzordean parte hartu gura baduzu, jo AEDra.

**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Udalak Union Cerrajerako langileen alde egin zuen**

Udaleko alderdi politiko guztiek oniritzia eman zioten UCEMeko Transformatu Metalikoetako Langileen Asanbladak lanpostuen defentsan aurkeztutako mozioari. Mozioa langileen batzarrek aurkeztu zuen, eta 2.350 arrasatearrek, Ibai-Artek eta ostalariek eman zioten babesa.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Anporra"**

Pertsona gizen eta baldarrari esaten zaio. —Aspaldixan ikusi barik neukan Pedro, eta, aura dago anporra, aura.



GORKA ORTEGA

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Martitzena, 18	<b>-2 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Eguaztena, 12	<b>24 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>0 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 12	24 °C	10 °C	- l/m²
Eguena, 13	21 °C	4 °C	- l/m²
Egubakoitza, 14	19 °C	6 °C	- l/m²
Zapatua, 15	20 °C	8 °C	- l/m²
Domeka, 16	16 °C	6 °C	- l/m²
Astelehena, 17	19 °C	0 °C	- l/m²
Martitzena, 18	20 °C	-2 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**'Betizu'-ko lagunak Arrasate Irratian**

Eguaztenean, hilaren 26an, 09:30ean, *Betizu*-ko kideak izango dira Arrasate Irratian. Mikel Zubimendi, Uxue Rodríguez, Leire Merino eta Ainara Epelde izango dira irratian. Atera berri duten diskoaren aurkezpena egingo digute, eta eskaintzen dabilzan kontzertuen berri emango dute. Bestalde, martitzen honetan urtebete beteko da e-debagoiena proiektua Leintz Gatzagan aurkeztu zela. Besteak beste, gatzagarrekin egingo digu berba.

**Moda telebistan eta lehengo medikuak**

Astero moduan, zapatu eta domeka goizean hainbat elkarrizketa errepikatu egingo ditugu. Sergio Hernandok modaren gaineko telebista kateak daudela kontatu digu. Roman Balantzategi eta Eusebio Iñarra, berriz, kontu kontari ibili dira garai baten herrian zeuden medikuen gainean. Bestalde, Herri Gain elkarteko presidentek, Jon Arriaranek, emandako azalpenak entzungo ditugu. Saio guztiak, 11:00etan.



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

**ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
06:30-7:00-7:30 Eguneko agenda  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
10:06 Igo Autobusera.  
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.  
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efemerideak, zozketak, zorion agurrak...  
12:00 Euskadi Irratiko albistegia  
12:06 Musika berriaren tartea.  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

**ASTELEHENA**  
20:00 MIR

**MARTITZENA**  
20:00 Txortxorrien

**EGUBAKOITZA**  
19:00 Planing Prest: Deiane Arrieta

**ZAPATUA**  
11:00 **Asteko elkarrizketak:** Sergio Hernando, Roman Balantzategi eta Eusebio Iñarra, Jon Arriaran eta Edorta Agirre.

**DOMEKA**  
11:00 **Asteko elkarrizketak**

## ASTEABIHITZETAN

### Ludoteka ibiltaria Uribarrin

Martxoan Uribarriko auzotarrei tokatzen zaie Txatxilipurdiren Ludoteka Ibiltariaz gozatzea. Hain justu, Usaetxe plazan egoten da ludoteka hori, zapatu goizetan. Hortaz, marrazkigintzan, mahai-jolasetan, futboleant eta koltxoneta-jolasetan ibiltzeko aukera dute oraingo hilabetean Uribarriko gaztetxoek; eta hala egin zuten joan den zapatuan. Ludoteka Ibiltariaren helburua da umeen eta gaztetxoentzako artean euskararen normalizazioa lortzea.

Dagoeneko Musakola eta San Andres auzoetan egon da Txatxilipurdiren ludoteka hori.

### Ertamerikako leku harrigarriak ikusgai

*Unibertso berdea: oihan tropikala* izeneko ikus-entzunezkoa izan zen eguaztenean Monterronen. Jabier Fernández biologo eta argazkilaria izan zen ekimenaren gidari. Orain dela bospasei urte Ertamerikan egon zen, eta handik ekarritako materiala erakutsi zuen: Guatemalako TIKAL piramideak, Belizeko ekosistema, Costa Ricako inguru berdeak eta sumendiak... Leku benetan ikusgarriak ikusteko aukera eskaini zuen Jabier Fernándezek.

### 1.800 euro Jaiotzaren batzordearendako

Joan den astean, Arrasateko Udalak San Andresko parrokiari 1.800 euroko dirulaguntza eman ziola ipini genuen; baina informazio hori ez da guztiz zuzena. Kontua da 1.800 euro horiek ez direla San Andresko parrokiarendako izango, Jaiotzaren batzordearendako baizik. Zorra, hortaz, ez zen parrokiarena, Jaiotzaren batzordearena baizik. Gogoratu Gabonetan jaiotzan apurketak egin zituztela, eta horiek konpontzerakoan sortu zela zorra; hain justu ere, zor horri aurre egiteko da Arrasateko Udalak emandako dirulaguntza.



### Iaz 142 lagun hil ziren lan-istripuetan

Euskal Herrian 142 langile hil ziren iaz lan-istripuan. Gainera, eguneko 191 baja izan ziren lan-istripuen ondorioz. Datu horiek guztiak joan den egubakoitzean eman zituen Duina elkarteak. Izan ere, lan-istripuen kontrako eguna antolatu zuen elkarte horrek eta, besteak beste, manifestazioa izan zen.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Ezerk ez gaitu harritzen

**A**zkenean Batasuna alderdi politikoa legez kanpo utzi dute. Egia esanda, ez nuen horren aurkakoa espero. Gauzak dauden moduan ikusita, harrigarriena izango litzateke orain Espainiako gobernuak edo epaitegiak atzera egitea. Autodeterminazioaren aldeko Bilguneak udal hauteskundeetan parte hartzeko asmoa ezagutzera

eman du eta dagoeneko plataforma hori legez kanpo uzteko ahotsak entzun ditugu. AEBek eta haien akolitoez Iraken aurkako ultimatumak egin duten une berean, justu, jakinarazi dute Batasuna legez kanpo utzi dutela.

Bestalde, poliki-poliki Euskaldunon Egunkaria-ren itxiera mediatikoan espetxe-ratutako hainbat lagun

fidantzapean askatu dituzte. Seguruenik, *Egin*-ekin eta beste komunikabide batzuekin gertatu zen bezala, ez da inoiz ezer frogatuko. Duela gutxi, Alemaniako lagun batek esan zidan Euskal Herrian Turkian baino txarrago gaudela. Izan ere, azkenengo bost urteotan Euskal Herrian lau komunikabide itxi dituzte eta alderdi politiko bat legez kanpo utzi dute. Turkian, azken urteotan, ez dute halakorik egin. Ez da inor lotsatuko?

## ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

### ARRASATEKO GAZTETXOAK ETA ERRETIRATUAK, ZUHAITZAK LANDATZEKO LANKIDETZAN

Udalako Ingurugiro Eskolak antolatuta, martitzenean Zuhaitz Eguna izan zen Arrasaten. Herriko ikastetxeetako seigarren mailako 200 neska-mutikok eta hainbat erretiratutako hartu zuten parte Udalako Ingurugiro Eskolak antolatutako ekimenean. Martitzenean dozenaka pago landatu zituzten Gara-

gartza auzoko soro baten. Aitzurrari eman eta eman, nahiko lan izan zuten ume eta helduen besok. Gaztetxoek sasoi hobeak, baina nagusiek sekulako abilezia. Ekimen horren helburuetako bat zuhaitzen bizi iraupena ziurtatzea da. Basoetan gero eta gehiago estimatzen da pagoen presentzia. /X.U.



Pando  
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)

Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebendun hizkiak

arbolapeta



## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

**KULTURA/** Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsak kideak behar ditu aurrera jarraitzeko

# Jairik jai hemezortzi urte egin eta gero, bertan behera geratzeko arriskuan

XABIER URZELAI

Aurtengo Aratusteetan mondragoetarrek zerbait sumatu dute faltan. Azken hemezortzi urteotan jaiak kolorea ematen ibili eta gero, erraldoien eta kilikien konpartsa ez zen kalera irten. Kilikiek eta erraldoiek jaiak janzten dituzte, baina horiek ez dira euren kabuz mugitzen. Bizitasuna izateko jendea behar dute barruan, eta ez dago jenderik.

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa 1985ean sortu zuten. Taldea Arrasateko gaitariak sortu zuten, baina jendea behar zen, eta gaitariak dantza taldera jo zuten kide bila. Erraldoi eta kilikien konpartsa sortu aurretik, baina, Arrasaten bi erraldoi zeuden. Bi erraldoiek baserritar bikotea irudikatzen zuten, baina erraldoi berriek lekua hartu zieten.

Egungo erraldoiak Iruñean egin zituzten, eta 1985eko San Juanetan atera zituzten lehenengoz Arrasaten. Erraldoiek oso harrera ona izan zuten eta, orduetik hona, mondragoetarrek gogoz ikusten dituzte herriko jaietan. Jose Ramon Pérez konpartsak kidea da, eta haren esanetan penagarria izango litzateke Arrasate kilikien eta erraldoien konpartsa barik geratzea; izan ere, herrian oso harrera ona dute: "Sortu zenetik taldeak oso harrera ona izan du. Jaietan jendea gure atzetik etortzen da kilikiak eta erraldoiak ikusteko asmoz. Behin baino gehiagotan ez irtetea erabaki dugu, jende faltan geundelako, baina herriko plaza gu ikusteko jendez beteta zegoela ikustera-koan, ahal genuen moduan irte-ten ginen. Aurtengo aratusteetan, baina, oso jende gutxi geunden eta



Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa herriko jai guztietan irteten da, eta jendeak eskertu egiten du hori.

ez da posible izan".

Konpartsak lagun esanetan, taldea behar den moduan ibiltzeko hogeita hamar lagun inguru behar dira, norbaitek kale egiten badu ordezkoak egon daitezten. Orain, hamar lagun daude lau erraldoi eta zortzi kiliki domi-

*"Taldea behar den moduan ibiltzeko hogeita hamar lagun inguru behar dira"*

natzeko, eta jende kopuru horrekin ezinezkoa da aurrera egitea.

#### **AZKEN HAMAR URTEAK GAINBEHERAN**

Jose Ramonen esanetan, azkeneko hamar urteotan taldeak dezentegin du behera: "Lehenengo zortzi urteak, parte-hartzeari dago-kionez, oso urte onak izan ziren. Urteek aurrera egin ahala, baina, jendea konpartsa uzten joan da eta orain errelebu faltan gaude". Jose Ramonen esanetan, urteak dira konpartsa oso-osorik irten ez dela: "Esango nuke azken bost urteotan konpartsa ez dela osorik irten, eta penagarria da, konpartsa osorik ikustea ikusgarria da-eta".

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa, orain arte, herriko jai guztietan irten izan da: San Juanetan, Santamasetan, Aratusteetan eta Maritxu Kajoi egu-

*"Askotan, jende gutxi egon baina irtetea erabaki dugu, gure zain zegoen jendetza ikusita"*

nean. Horrez gain, beste herri batzuetako jaietara joateko deiak ere izaten dituzte: "Bilboko Aste Nagusira ez dugu kalerik egiten, ezta Plentzia edo Lekeitiora ere. Hala ere, urteek aurrera egin ahala geroago eta gutxiago irten gara. Lehen, urtean hemezortzi irteera egiten genituen; orain lau irteera baino ez ditugu egiten".

Hemezortzi urtez horrenbeste herritan gora eta behera ibili eta gero, beti dago zer kontatu: "Badaukagu anekdotaren bat edo beste. Behin, haizeak lurrera bota zuen erraldoi bat, baina barruan ez zegoen inor, eta erraldoiak ere ez zuen inor harrapatu". Orain dela ez asko, Gasteizen kalejiran zebiltzala konpartsak laguneta-ko bat lurrera erori zen erraldoi eta gutzi: "Beste behin, Lekeitio bi erraldoi elkarrekin erori ginen, baltse bat dantzatzeko genbiltzala.

*"Kanpora joaten garenean jai giroan joaten gara; ondo pasatzea da helburua"*

Momentuan bertan susto ederra hartzen da, baina inoiz ez da ezer gertatu". Erraldoiekin ibiltzea ez da oso gaitza: "Erraldoiak ekarri zituztenean Iruñeko jendea etorri zen erraldoiekin dantzari egiten erakustera. Ez da gaitza. Gainera, denbora laburra egiten dugu dantzari, bizpahiru minutuko saioak. Eta ordezko bat izanez gero, ez gara askorik nekatzari".


#### **IRTEERA ESANGURATSUENAK**

Lehenago esan bezala, Arrasateko konpartsa lau erraldoi eta zortzi kilikiek osatzen dute. Lau erraldoiak Ganboatarren eta Oinaztarren arteko borroketako protagonistetako batzuk dira: batetik, Artazuabiagako Martin Bãñez eta haren emazte Sancha Otxoa daude; bestetik, Butroiko Gómez González eta haren emazte Leibako Elvira. Kilikiek, berriz,



ARRASATE PRESS

Arrasateko konpartsa gaitariak sortu zuten, gero dantzarien laguntza izan zuten.



ARRASATE PRESS

Arrasateko gaztetxoak kilikien gainean egoten dira. Kilikiak desagertuz gero gaztetxoak dira faltan gehien botako dituztenak.

hainbat garaitako pertsonaiak irudikatzen dituzte, hala nola: Indianoa bere lurraldetik ondasun bila ihes egindako pertsonaia da; Pirata Urdina XVII. mendea baino lehenagoko pertsonaia. Berau *Arrasateko pirata* zen, Cadiztik irten eta itsas abenturak bizi izan zituen; Pirata: *Arrasateko pirata*-ren laguna, sekulako ondasunak eskuratu zituen bere lagun pirata urdinarekin batera; Ola-

gizona: egungo errementeriaren parekoa den pertsonaia. Horiek, kilikiak irudikatzen dituzten pertsonaietako batzuk.

#### IRTEERA ESANGURATSUENAK

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsak irteera asko egin dituen arren, Bartzelonara eta Matadeperara (Lerida) egindako bidaiak azpimarratu ditu Jose Ramonek.

Irteera biak jarraian egin zituzten, 1991n lehena eta hurrengo urtean bigarrena. 1992an, Matadeperan munduko erraldoi kontzentrazio handiena egin gura izan zuten, Guinness-erako marka hausteko. Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsak ez zuten deialdi masibora kalerik egin. Hiru egun egin zituzten Matadeperan, eta Jose Ramonen esanetan sekulakoa izan zen: "Guztira 700 erraldoi inguru elkartu ginen han. Leku guztietako erraldoiak zeuden: Euskal Herrikoak, Espainiako Estatuak, Europako zenbait lurraldetakoak, baita Japoniatik ekarritakoak ere". Uda zenez, erreka lehortuta zegoen, eta erreka ubidean egin zuten desfilea: "Desfilea hasi eta lau ordura hasi ginen gure erraldoiak mugitzen. Metro gutxi batzuk egin eta geratzeko esan ziguten, egiten zuen beroarekin

ikusleak zorabiatzen hasi zirela eta desfilea bertan behera uztea erabaki zutela. Ez genuen jakin errekorrik egin genuen edo ez".

Arrasateko konpartsan batzen duten dirua kostuei aurre egiteko izaten da: "Hasieran, irteerak egiteagatik dirua irabazten genuen. Lanean hasi ginenean, baina, dirurik ez hartzea erabaki genuen". Egun, konpartsan ibiltzeagatik jendea ez zaio ordaintzen, jasotzen den dirua gastuei aurre egiteko izaten da: "Kanpora joaten garenean konpartsak ordaintzen du guztia. Hala ere, jende gaztea erakartzeko, agian, lehengo formulara jo beharko dugu. Lanean hasi ginenean konpartsan ibiltzeagatik ez kobratzea erabaki genuen. Orain, baina, jende gaztea erakartzeko kontu horiek guztiak aztertu egin beharko dira".

#### JAIEN BESTE IKUSPUNTU BAT

Argi dago konpartsa barruan jaiak beste modu batean bizi izaten direla: "Gauetan apur bat zaindu egin behar zara, baina eguna gehiago gozaten duzu. Talde baten barruan zaudenean jaien beste ikuspuntu bat izaten da. Argi dago erraldoiekin gora eta behera ibiltzea gustatu egin behar zaizula, baina jendearen harrera ikusita gustura egiten da lan hau".

Publikoari dagokionez, Arrasatekoa ona bezain zorrotza da: "Arrasaten kilikiak korrika egin behar dute. Herri bakoitzeko umeek ohitura ezberdinak dituzte, eta Arrasatekoak zure gainean egoten dira. Kanpoko kilikiak Arrasatera etorri izan direnean gorriak ikusi dituzte", dio barrezka Jose Ramonek. Argi dago, hortaz, desagertuz gero txikiak ere faltan sumatuko dituztela.

## Konpartsako kide izateko deialdia

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa desagertzeko zorian dago, eta Arrasateko koadrilek dute hori eragozteko giltza. Konpartsako kideek taldea bertan behera utzi aurretik azken saiakera bat egin gura dute. Apirilaren 5ean, zapatua, goizeko hamaiketan, konpartsan parte hartu nahi duen edonork udaletxeko arkupeetan dauka hitzordua. Ez du axola koadrila osoak edo jendea bakarka joateak, konpartsan lagun talde onā egingo dute-eta. Ez du axola txiki edo handia izateak, neska edo mutila izateak, eskatzen den gauza bakarra 17 urtetik gorakoa izatea da. Horrez gainera, beharrezkoa da jendea ezagutze-ko eta beste jai batzuk bizi izateko eta ondo pasatzeko gogoia izatea.

Joan den astean ere idatzi genuen jendeak geroago eta konpromiso gutxiago gura dituela, herriko talde edo elkarteetan parte-hartzea nahiko eskasa dela. Hala

ere, penagarria izango litzateke azken hemezortzi urteotan konpartsak egin duen bidea bertan behera uztea.

Arrasateko konpartsa errelebu faltan dago, eta taldean sartzeko gonbidapena batez ere gazteei dago zuzenduta. Helburu nagusia konpartsa berriro ere sortzea da. San Juanak gero eta gertuago daude, eta penagarria izango litzateke herriko jaietan erraldoi eta kilikiak biltegian geratzeko.

Konpartsako kideek argi dute taldean gauza batzuk aldatu egin beharko direla, baina erabaki guztiak kide berriekin hartu gura dituzte. Azken baten, eurek hartuko dute konpartsaren errelebu eta eurek erabakiko dute dira zer-nolako konpartsa gura duten. Esan bezala, apirilaren 5ean, udaletxeko arkupeetan. Agertzen diren herritar guztiak ongi etorriak izango dira, seguru.



ARRASATE PRESS

Erraldoiendako euria oso kaltegarria da. Eguraldi txarrarekin ez dituzte ateratzen.

GIZARTEA/ Heldu programa

# Etorkinei laguntzeko ekimena abiaraziko dute

UBANE MADERA

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Heldu izeneko programan parte hartuko du Arrasateko Udalak. Helburua da etorkinei laguntzea, hemen bizitzeko eta lan egiteko behar dituzten baimenak lortzen. Izan ere, gero eta etorkin gehiago dago horrela.

Oraingo asteko Gobernu batzordeak onespina eman dio Heldu programan parte hartzeari. Hain justu ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak egin zuten bat Eusko Jaurlaritzaren programarekin. Gizarte Zerbitzuetako teknikari Iñigo Garitanok jakinarazi digun moduan, Arrasatera gero eta etorkin gehiago dator lan egiteko eta bizitzeko baimen barik. Eta, zelanbait, horiei lagundu gura diete. Izan ere, etorkin horiek arazo larriak izaten dituzte bizimoduan aurrera egiteko (ezin dute lanik egin, laguntzak lortu...).

## PAPELAK LORTZEN LAGUNTZEA

Helburua da etorkin horiei beharrezkoak dituzten baimenak lortzen laguntzea. Baimen horiek Espainiako Estatuak ematen ditu, Donostiako ordezkariaren bitartez. Hortaz, Arrasateko udaletxeak eta Eusko Jaurlaritzak egin dezaketen gauza bakarra da etorkinei tramiteak egiten laguntzea.



ARTXIBOA

Etorkinei euren egoera legezkatzen lagunduko diete Udaletik.

## ABOKATUEKIN ELKARLANEAN

Horrela bada, egoera horretan dauden eta egoera hori erregularizatu gura duten etorkinek udaletxera jo beharko dute. Han, beharrezko dokumentuak eta informazioa eskatuko dizkiete, eta hori guzti hori Eusko Jaurlaritzara bidaliko dute.

Bere aldetik, Eusko Jaurlaritzak hitzarmena egin du Gipuzkoako Abokatuaren Kolegioarekin, Atzerrikotasunari Buruzko Legean adituak diren abokatuarekin elkarlanerako.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen eskaera eta dokumentu guztiekin Donostiako ordezkarietara joango dira abokatuok eta han baimenak lortzeko eskaerak aurkeztuko dituzte.

## ETORKIN GEHIENAK EGOERA HORRETAN

Iñigo Garitanok emandako datuen arabera, EAEko etorkinen %25ak bakarrik du hemen bizitzeko baimen iraunkorra. Arrasateri dagokionez, etorkin askok badituzte bizitzeko eta lan egiteko baimen horiek, baina, beste askok ez.

duten taldeen kasuan, besteak beste, Arrasaten egin behar dute lan edo taldearen onuradunak arrasatearrak izan behar dira; frogatutako jarraipena eta egonkortasuna izan behar dute eta Udaleko Gizarte Zerbitzuek urtero garatzen duten programarekin lotura izan behar du.

Guztira, 36.060 euro daude taldeen artean banatzeko.

## GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

Gobernu Kanpoko Erakundeek kasuan, berriz, 100.000 euro ditu Udalak taldeen artean banatzeko. Horrela, dirulaguntzaren %80 Arrasaten erroldatuta dauden taldeendako izango da; %15 Arrasatek kanpokoendako, eta %5 Hirugarren Munduan garapenarekin lotutako gaietan herritarrek sentsibilizatzeko, hezteko eta prestatzeko programak finantzatzeko. Hori bai, adibidez, kutxek ezingo dute horrelako dirulaguntzarik eskatu.

GIZARTEA/ Dirulaguntzak

# Gizarte zerbitzuekin eta GKEekin lotutako laguntzak

Euren jarduerak gizarte zerbitzuetara bideratzen dituzten taldeendako eta gobernuz kanpoko erakundeendako dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du Udalak. Hain justu, apirilaren 22ra arte izango da zabalik eskaerak

egiteko epea. Aipatutako bi motatako talde biek baldintza jakinak bete beharko dituzte dirulaguntzak eskatu ahal izateko.

## GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte zerbitzuetan jarduten



UBANE MADERA

Harreman eta horrelako erakundeek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak.

LABUR

## Auzo Lagun eta Multifood enpresek euren isuriak zaindu beharko dituzte

Tekniber izeneko enpresa Auzo Lagun eta Multifood enpresek egin dituzten isuriak aztertzen ibili da; eta Ingurumen batzordeari emandako datuen arabera, aipatutako bi enpresa horien isuriek ez dute legea betetzen. Hain justu, Auzo Lagunek hiru parametrotan gaintzen du legeak ezarritako muga eta Multifood enpresak lautan. Horrela bada, Udalak bi hilabete eman die bi enpresei beharrezko neurriak hartu eta isurien parametroak zuzentzeko. Behin epea bukatuta, berriro ere aztertuko dituzte isuriak, arazoa konpondu duten edo ez ikusteko. Edozelan ere, aipatutako bi enpresek Udalarari adierazitakoaren arabera, euren esku dagoen guztia egingo dute egoera konpontzeko.

## Aldaigain eta Jose Luis Iñarra pasealekua lotzen dituen oinezkoen bidea, itxita

Uarkapeko erabilera anitzeko eraikinari dagozkion urbanizazio lanak direla-eta, Aldaigain kalea eta Jose Luis Iñarra pasealekua lotzen dituen oinezkoendako pasabidea itxi egingo dute. Ondorioz, Aldaigain kaletik Jose Luis Iñarra pasealekura joateko Otalora Lizentziaduna kalera jaitsi beharko da. Hala jakinarazi diñu Udalak prentsa-ohar baten bitartez. Itxiera hori urbanizazio lanek eragingo duten arriskua bukatu bitartekoa izango da. Horrek sortuko dituen eragozpenengatik barkamena eskatu du Udalak.

## Eusko Jaurlaritzak ez du onartu zenbait udal obra egiteko laguntza eskaera

Erguin auzoa berriro urbanizatzeko Arrasateko Udalak egindako laguntza eskaera ez du onartu Eusko Jaurlaritzak. Ezta alde zaharreen F eta G etxeetan karkaba libre uzteko laguntza eskaera ere. Hala jakinarazi du Hirigintza sailak oraingo asteko Gobernu batzordean. Edozelan ere, Hirigintza saileko ordezkariak adierazi digute, diru laguntza horiek eman ez arren, aipatutako lanak berdin-berdin egingo dituztela.



## Ibarreko Zatik Planaren gaineko hitzaldia

Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Debagoieneko Lurraldearen Zatik Planaren agertzen diren proposamenik deigarrienak ezagutarazteko hitzaldia antolatuta du Lurrats taldeak. Datorren astelehenean, hilak 24, izango da, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Hitzalaria, berriz, plana bera idatzi duen Jose Miguel Toledo arkitektoa izango da. Lurrats taldearen ustez, etorkizun hurbilean bailarak izango duen garapenari begira plan horrek garrantzi handia izango du, eta horregatik antolatu dute hitzaldia.





Astlehenean, hilaren 24an, itxiko dute Kasino elkartearen lokal zaharra.

UBANÉ MADERA

**KULTURA/** Kasino zaharra itxita

## Kasino elkartearen egoitza zaharra betiko itxiko dute

ARRASATE PRESS

Astlehenean, hilaren 24an, behin betiko itxiko dute Kasino elkarte historikoa. Izan ere, Udalak inguru horretarako asmoak ditu eta elkartearekin hitzartu zuen handik beste leku batera aldatuko zuela elkarte. Iturriotz kalean egongo da egoitza berria.

Kontua da Udalak etxebizitzak egin gura dituela Kasino elkartearen lokal zaharra dagoen inguruan, Erdiko kalean. Horren ondorioz, Udalak Kasino elkartekoei proposatu zien Erdiko kaleko lokaletatik, Iturriotz kaleko lokal bat hartu, beharrezko lanak egin eta han ezartzea Kasino elkarte.

Kasino elkartekoei onartu egin zuten Udalaren proposamena, eta, hitzartutako moduan, astlehenean, hilaren 24an, behin betiko itxiko dute Erdiko kaleko lokala.

**TAMAINA HANDIKO EGOITZA BERRIA**  
Kasinoko batzarrak erosi du dago-

eneko egoitza berria izango den lokala, eta lan batzuk eginda daude. Kasino elkarte, hortaz, Iturriotz eta Zerkaosteta kaleen artean kokatuta egongo da, sasoi baten Viguri denda kokatuta egon zen lekuan. Dena dela, batzarreko partaideek aditzera eman digutenez, egoitza berriak 200 metro koadro inguru izango ditu, orain arteko egoitzaren antzera.

Horrez gainera, egoitza berriak orain arteko elkartearen zerbitzu eta aukera antzekoak izatea dute helburu batzarkideek.

### MEÑDE BATEKO HISTORIA

Kasino Viteri elkarte 1902an

zabaldu zuten, Viteri Fundazioak bultzatuta, Viteri Eskolarekin ia batera. Hasieratik, jauntxoak eta dirua zeukatenak hasi ziren batzen. Horietako batzuk abertzaleak ziren eta beste batzuk abadeen aurkakoak. Ezagun da sasoi hartan, XX. mendeko lehenengo urteetan, Kasinoko batzuek On Tiburcio Satarain parrokoari harrika egin ziotela.

Sasoi hartan, Erdiko kaleko Kasino Mondragon elkarte jai eta dantzaldi mordoa egiten zituzten, eta gutxi batzuk bakarrik sartu ahal izaten ziren barrura. Are gehiago, adituek diotenez, Bilboko San Frantzisko eta Cortes inguruetako neskatxak ere ekartzen zituzten batzuetan Kasino Viteriko jaietara.

Gerora, gerra denboran, falangistek Kasinoaren zati bat euren dako hartu zuten, orain arte sukaldea izan dena, hain zuzen ere, handik alde egin zuten arte.

Geroago, Kasino Mondragon elkarteko ateak zabaldu zizkieten bazkide izan gura zutenei, eta horrela jarraitu du gaur arte.

*Astlehenean,  
hilaren 24an,  
Kasino elkarte  
behin betiko  
itxiko dute*



## Batasunaren aldeko protesta ekimenak herrian

U.M.

**Batasunaren legez kanporatzea dela-eta, protesta ekimenak izan dira egunotan Arrasaten. Horrez gainera, AuBk bihar, zapatua, deitu duen manifestaziora joateko autobusak antolatu dituzte.**

Espainiako Auzitegi Gorenak Batasuna legez kanpokotzat jo eta egun berean (martitzenean) manifestazioa izan zen Arrasaten, protesta egiteko. Manifestazioa hasi baino lehen esandakoaren arabera, Batasunaren legez kanporatzea Espainiako Estatuaren eraso-

dela uste du Arrasateko ezker abertzaleak, Espainiak Euskal Herria jomugatzat duela. Hala eta guztiz ere, gaineratu zuen ezker abertzaleak Euskal Herriaren alde lanean eta borrokan aurrera segitzeko legitimitatea duela; hortaz, aurrera egingo duela.

Martitzenean ez ezik, gaur ere, egubakoitza, izan dira bestelako protesta ekimenak Arrasaten.

Eta, horrez guztiaz gain, AuB taldeak bihar, zapatua, Bilbon deitu duen manifestazioan parte hartzeko autobusak antolatu dituzte. 15:45ean irtengo dira, Garibaitik. Irati tabernan eman behar da izena.

## LABUR

### Gaur, egubakoitza, hartuko du etxerako bidea Iraken dagoen Arrasateko brigadistak

Gaur, egubakoitza, irtengo dira Ammandik Euskal Herrirantz Irakerara joandako brigadistak. Tartean Ander Rodríguez arrasatearra dago. Joan den zapatuan, hilaren 15ean, irten ziren Euskal Herriko brigadistak Bagdaderantz. Eta, Iraketik irteteko emandako abisuei jaramon egin barik, aste osoan han geratzea erabaki zuten, aurreikusitakoarekin jarraituz. Horrela, Komite Internazionalistekako ordezkariak eguaztenean Arrasate Irratiari jakinarazitakoaren arabera, brigadistek hiru Bagdaden bertan geratu dira aste osoan, Kubako enbaxadan, eta gainerakoak -arrasatearra tartean- Iraken eta Jordaniaren arteko mugan egon dira. Kontuak kontu, gaur zuten Euskal Herrirako bidea hartzeko asmoa.

### Yoga eta Masaje ikastaroak hasiko dira datozen hilabeteotan

Arrasateko Yoga Elkartearen eskutik Masaje eta Yoga ikastaroak izango dira Arrasaten. Bietan hasierako ikastaroa emango dute. Masajeen kasuan, martxoaren 31n hasiko dira eskolak eta ekainaren 9an bukatuko dira. Eskolak astlehenean izango dira. Eta yogari dagokionez, apirilaren 2an hasiko dira eskolak eta ekainaren 11n bukatuko dira. Kasu horretan, eskolak eguaztenean izango dira. Izena eman gura duenak 943 79 20 85 telefonora deitu behar du, eguerdian, edo 943 79 66 98 telefonora, gauean.

### Korrikari lagundu gura dionak gaur, egubakoitza, du aukera

Geroago eta gertuago dagoen Korrikari laguntzeko ekimenak antolatu dituzte Arrasaten gaurko, egubakoitza. Horren arabera, arratsaldeko seietatik aurrera Korrikarekin lotutako materiala (kamisetak, metxeroak, pinak eta antzerakoak) erosteko aukera egongo da Seber Altube plazan. Eta, horrekin batera, Seber Altuben bertan zenbait lagun Korrikaren alde pegatina ipintzearen truke dirua batzen ibiliko dira.



## ARRASATEKO 'MARADONA', EZKONDUTA!

**H**onezkerok Iban Aranguren eta bikotekidea Zeelanda Berrian egongo dira, eztei-bidaian. Ezkondu aurreko azken parrandan, koadrilakoek, Boca Juniors taldeko jarraitzaileek, euren liderra behar

zuten: *Maradona*. Ibanek Mondrako jokalaria zenean baino autografo gehiago sinatu zituen zapatu goiz baten Seber Altuben, eta eguerdian sagardotegi batera joan ziren bazkaltzera. Parranda Beasainen egin zuten.



## EZKONDU AURREKO AGUR-AFARIA

**B**ihar ezkonduko dira Igor eta Ane, eta joan den asteburuan nork bere koadrilarekin ezkondu aurreko agur-afaria egin zuen. Gizonezkoak Astigarragara eta emakumezkoak Donostiara. Gipuzkoako beste puntan ibili eta gero, parranda egitera Arrasatera etorri ziren guztiak. Zorionak, bikote!

## GOIKOBALU MADRILEN

**G**oikobaluko hainbat kidek Espainiako Koruarekin abestu zuten otsail amaieran. Emankizun arrakastatsua izan zen, eta esperientzia bera polita izan zen. Bestalde, Goikobalu abesbatzak mondragoetarrei dei egiten die koruan parte hartzeko.



## IKUSKIZUNA JAI-ZALEN

**J**oan den domekan, Bahía Naufragio talde valentziarraren ikuskizuna izan zen Jai-Zale tabernan. Jai-Zalera hurreratu zirenek, besteak beste, *Sor Campana*-ren poesia errezitaldiaz gozatzeko aukera izan zuten. Giro polita egon zen, errezitaldiaz gain, gitarra, flauta eta biolontxelo doinuekin gozatu ahal izan zen-eta.



**MIREN ARRIETA  
PERFUMERIAN**  
zure larruazala  
eraberrituko duen  
lurrina ezagutzera  
emango dizugu.

Martxoaren 24tik 28ra  
SUSTAPENA:  
LA PRAIRIE produktua  
erosteagatik oparita  
jasoko duzu\*.

Bisita gaitzazu Arrasaten  
Zerkaosteta kalea 12.  
Tel.: 943 79 00 35

\*Izakinak bukatu arte.

## Kenci Arrasate igoera faserako sailkatu da azken jardunaldian

XABIER URZELAI

Arrasateko saskibaloitza taldeak igoera faserako sailkatzeko zorte apur bat behar zuen. Eta mondagoetarrek zortea lagun izan dute. Ursulinasek kale egin zuen eta Kenci Arrasatek jipoi ederra eman zion Calasanciori (48-70). Lortu da helburu nagusia.

Kenci Arrasatek justu-justu baina lortu du denboraldiko helburu nagusia: EBA Ligarako igoera fasea jokatzeko.

Igoera faserako sailkatzeko postu bakarra geratzen zen, sailkapeneko seigarren postuak ematen zuen aukera hori eta bi talde zeuden horrengatik borrokan. Ursulinas taldeak irabazte-arekin nahikoa zuen, baina nafarrekin kale egin zuten Antonio Erro y Eugi taldearen kontra.

Mondagoetarrek domeka eguerdian jokatu zuten, eta ordu-rako bazekiten Ursulinas taldeak galdu egin zuela. Inoiz baino gogotsuago kantxaratu ziren Iker Zubiriaren mutilak. Calasancioaren kantxan jokatu ere, mondagoetarrek izan ziren partiduan jaun eta jabe. Denboraldiko helburu nagusia eskura zuten, eta ez zeukaten urteko norgehiago-



ARRASATE PRESS

Oraingo asteburuan Kenci Arrasatek atsedean izango du.

ka garrantzitsua bertan behera uzteko asmorik.

### HASIERA PAREKATUA

Calasancioaren kontrako lehenengo minutuak parekatuak izan ziren. Markagailuak 25-26 erakusten zuenean, baina, Arrasatek segidan lortutako hiruko bi jaurtiketa eta bi jaurtiketa libreri esker aurrea hartu zuen. Hirugarren laurdenean mondagoetarrek gogor kantxaratu ziren,

norgehiagoka erabakita uzteko asmoarekin, eta halaxe egin zuten. Mondagoetarrek hogeipuntu baino gehiagoko aldea eskuratu eta horrenbeste sufritu eta gero, azkeneko minutuetan ederki gozatu zuten. Igoera faserako sailkapena lortuta zegoen, eta bazegoen zer ospatu.

Igoera fasea martxoaren 29an hasiko da. Ea ordurako mintututa dauden jokalariairekuperatzen diren.


## FOTOKIROLA



### Arrasatek 22-10 irabazi zion Eibarri

Mondagoetarrek igoera fasean maila polita ari dira erakusten. Izan ere, maila ona duten taldeen kontra emaitza positiboak ari dira lortzen. Joan den astean, Arrasate erraz nagusitu zen Eibarren kontra. Lehenengo zatian Arrasatek alde polita eskuratu zuen, eta bigarren zatian Eibarrek bi entsegu baino ez zituen egin. Igoera faseko talde onenak goiko mailara igotzeko azken txanpa jokatu du, eta Arrasatek azken txanpa horretara sailkatzeko aukerak ditu. /X.U.

## FOTOKIROLA



### Gaur, egubakoitza, Boulder Txapelketa jokatu da Uarkapen

Arratsaldeko seietan hasita, gaur, egubakoitza, Boulder Txapelketa izango da Uarkapen. Txapelketa hori antolatzea Gasteizko eskalatzailen proposamena izan zen, eta Besaide Mendi Elkarteak gogo onez antolatu du txapelketa. Gaur, hortaz, inguruko eskalatzailak ikusteko aukera izateaz gain, Araba aldeko eskalatzailak ere izango dira Arrasateko boulderrean.

Orain arte Santamasetan egiten den boulder txapelketaz gozatu ahal izan dugu. Gaurko txapelketa, baina, bestelakoa izango da, besteak beste, kanpotar gehiago izango dira-eta. /X.U.

## ATLETISMOA

### Markel Blanco bosgarrena izan zen Euskadiko Selektioarekin

Joan den asteburuan, Espainiako Eskola Arteko Atletismo Txapelketa izan zen, eta Euskal Selektioa laugarrena izan zen. Markel Blanco atleta mondagoetar gazteak 6.000 metroko lasterketan hartu zuen esku, eta arrasatearra bosgarrena izan zen. Horrez gain, infantil mailako Gipuzkoako Txapelketa ere jokatu zen joan den astean. Txapelketa hainbat probak osatu zuten, eta urrea Jon Ander Amadorrendako izan zen. Iñaki Etxagibel izan zen bigarrena, eta Imanol Esperasate seigarrena izan zen.

## PILOTA

### Mondagoetarrek bizi-bizirik Udaberri eta Debarroko txapelketetan

Arrasateko senior mailako pilotariak sasoi onean daude. Astelehenean, Debarroko Txapelketan 10-22 nagusitu ziren oñatiarren kontra. Pilota biziarekin jokatu zuten, eta Iker Zugasti aurrerariak sakez min handia egin zuen. Debarroko Txapelketako hurrengo partidua martitzenean jokatu dute, Bergararen kontra. Partidua Uarkapen izango da, 19:00etan. Udaberri Txapelketan, berriz, Arrasatek Intxaurrendoren kontra jokatu du gaur, egubakoitza, 19:00etan. Norgehiagoka Uarkapen izango da, eta irabaziz gero, mondagoetarrek Udaberri Txapelketako final erdian izango dira.

## DUATLOIA

### Antxintxika Debagoiena Taldeko hamabost atleta izango dira Oñatiko Duatloian

Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldeko hamabost lasterkari izango dira bihar Oñatiko Duatloian. Biharkoa Duatloi Txapelketako hirugarren proba izango da. Lehena Basaurin jokatu zen eta bigarrena, joan den astean, Barakaldon. Denboraldiko lehen proban Zuhaitz Ezpeleta mondagoetarra nagusitu zen eta joan den astean seigarren postuan helmugaratu zen.

# Ordiziari 8-0 irabazi ondoren, liderra puntu bakarrera dago

XABIER URZELAI

Joan den asteburua birbila izan zen arrasatearrendako. Mondrak 8-0 irabazi zion Ordiziari eta, are garrantzitsua goa dena, liderrak, Zumaiakok, berdindu egin zuen Intxurren zelaian. Arrasateko futbol taldeak hirugarren postuan jarraitzen du, baina lider berria, Urola, puntu bakarrera dago. Zumaiako da bigarrena.

Erregional mailako lehenengo postuak inoiz baino estuago daude. Hasi da lasterketa, eta zazpi partiduk osatzen dute lasterketa hori. Urolak puntu bateko aldearekin hasi du lasterketa, eta segidan Zumaiako eta Mondra daude. Erregional mailako lehen postua hiru talde horien artean erabakiko da, eta zazpi finaletan hutsegite gutxien egiten duenak eskuratuko du lehen postua.

## GOL ZAPARRADA

Mondrak gol zaparrada egin zion Ordiziari. Kontrarioak ezer gutxi erakutsi zuen: aurrealdean jokaldi arriskutsuak egiteko gaitasunik eza, defentsa ahula eta erdialde ahulagoa oraindik. Eta Mondrari jokatzeko utziz gero zapatuan gertatu zena gertatzen da: erdial-



MIKEL ARANBURU

Gutxien jokatzeko dutenek minutuak izan zituzten zapatuan.

dean dauden Iker Lópezek eta Ruben Ruedak gura bezala jokatzeko dutela, aurrealdeko jokalariek ere ondo eutsi zioten partiduari. Ordurako, Ordizia partida amaitzeko irrikan zegoen.

Oraingo asteburuan Mondrak Ondarroako Aurrera taldearen kontra jokatu du Atxabalpen. Ondarroan Mondra 1-7 nagusitu zen. Arrasateren kontrario zuzenean ere etxean jokatzeko dute, eta partidua errazak dituzte. Lortu beharreko hiru puntu dira.

kien Josu Zubiak, lau aldaketa egin zituen, eta ordezkariak ere ondo eutsi zioten partiduari. Ordurako, Ordizia partida amaitzeko irrikan zegoen.

Oraingo asteburuan Mondrak Ondarroako Aurrera taldearen kontra jokatu du Atxabalpen. Ondarroan Mondra 1-7 nagusitu zen. Arrasateren kontrario zuzenean ere etxean jokatzeko dute, eta partidua errazak dituzte. Lortu beharreko hiru puntu dira.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### EMAITZAK

#### A MULTZOA

Saukelu Scream - Lasagabaster	2-2
Dribling.es.vg - Betrayeur	3-6
Bikain Akademia - You Know	3-7
Etxinai! - Fuxxion	11-6

#### B MULTZOA

AC Surcos - AT Celaya	Atzeratuta
Iriztu Taberna - Koka Juniors	3-4
Etxerat - Aurrera Bolie	4-2
Makanaki - Goma-2	2-7

### SAILKAPENA

#### A MULTZOA

1. Betrayeur	6
2. Saukelu Scream	5
3. Etxinai!	3
4. Dribling.es.vg	3
5. You Know!	3
6. Fuxxion	2
7. Lasagabaster	2
8. Bikain Akademia	0

#### B MULTZOA

1. Etxerat	6
2. AC Surcos	4
3. AT Celaya	3
4. Iriztu Taberna	3
5. Goma-2	2
6. Koka Juniors	2
7. Aurrera Bolie	2
8. Makanaki	0

### PARTIDUAK

#### MARTXOAK 22, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Fuxxion - You Know!	AC Surcos
12:00: AC Surcos - Iriztu Taberna	Fuxxion
13:00: Etxinai! - Betrayeur	Iriztu taberna
15:50: Goma-2 - Aurrera Bolie	Saukelu
17:00: Saukelu Scream - Dribling	Goma-2
18:00: Makanaki - Koka Juniors	Dribling

#### MARTXOAK 23, DOMEKA

11:50: Bikain Akad - Lasagabast	AT Celaya
13:00: Etxerat - AT Celaya	Bikain Akad

### TENTISIO HANDIKO PARTIDUAK

#### LAU JOKALARI ZIGORTUTA

Bigarren fasea ere badoa apurka-apurka aurrera, eta norgehiagoka asko tentsio handikoak izaten dira. Tentsio horren ondorioz, oraingo asteburuan lau jokalaririk zigortuta daude: Betrayeur eta Dribling taldeen arteko partiduen ondorioz talde bakoitzeko jokalaririk bana zigortuta daude, eta Aurrera Bolie eta Etxerat taldeetako bana.

#### PARTIDU INTERESGARRIAK

Aurrekoan ere esan genizuen partidua interesgarriak aurreratzea gaitza dela, baina oraingoan ausartu egingo gara. Zapatu eguerdian AC Surcos eta Iriztu Taberna taldeen arteko norgehiagoka ikusteko modukoa izango da. Horrez gainera, Etxinai-Betrayeur eta Etxerat-AT Celaya norgehiagokek ere emango dute zuzurrik.

### FOTOKIROLA



## Gipuzkoako Trialsin Txapelketan, maila ona eta eguraldi hobea

Arrakastatsua izateko osagarri guztiak zituen joan den domekan Udalan jokatu zen Gipuzkoako Trialsin Txapelketak: inoiz baino parte-hartzaile gehiago, maila ona eta eguraldi zoragarria. Domekako herrialde mailako txapelketako bosgarren eta azken proba izan zen. Txapelketa erabakigarria izan zen. Aurreko lau probak Errenterian, Hernanin, Aretxabaletan, eta Urretxun jokatu ziren. Hirurogeita hamabi trialsin-lasterkarik hartu zuten parte Udalako saioan, bost mailatan banatuta. Punta-puntako trialsinlariak izan ziren Udalan; besteak beste, Benito Ros nafarra eta Iker Lezeta donostiarra. Hurrengo proba Euskadiko Txapelketa izango da.

### KIROLAGENDA

#### JOKATZEKOAK FUTBOLA

Mondra - Aurrera Ondarroa	Erregionala. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.
Mondra - Euskalduna	Ohor. gazteak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.
Arrasate - Ikasberri	Big. mail. Kad. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.
Zestoa - Arrasate	Kadeteak. Kopa. Zapatuan. 11:30. Zubiaurre.
Añorga - Arrasate	Infantilak. Zapatuan. 09:30. Rezolan.

#### SASKIBALOA

Talde guztiak atseden dute.

#### ESKUBALOA

Gatz Museoa Jakion - Leizaran	Kadeteak. Zapatuan. 16:00. Musakolan.
Gatz Museoa Jakion - Elgoibar	Gazteak. Zapatuan. 17:45. Musakolan.
Urnieta - AGR Arrasate	Seniorrak. Kopa. Domekan. 11:30. Urnietan.

#### PILOTA

Arrasate - Intxaurrondo	Udab. Txap. Egubakoitzean. 19:00. Uarkapen.
Arrasate - Bergara	Debarro. Txap. Martitzenean. 19:00. Uarkapen.

#### EMAITZAK

#### SASKIBALOA

Seniorrak: Calasancio - Kenci Arrasate	48-77
--	-------

#### ERRUGBIA

Seniorrak: Arrasate - Eibar	22-10
-----------------------------	-------

#### FUTBOLA

Lehen erregionala: Mondra - Ordizia	8-0
Ohor. gazteak: Ilintxa - Mondra	0-2
Kadeteak: Antonioano - Arrasate	0-2
Bi. m. kad.: Arrasate B - Aretxabaleta B	2-1
Ohor. infanti.: Arrasate - Aretxabaleta	2-1
Neskak: Almen - Arrasate	1-2

#### PILOTA

Debarro. Txap. Oñati - Arrasate	10-22
---------------------------------	-------

**GASTRONOMIA ELKARTEAK/** Herri Gain gastronomia elkarteak 25 urte bete ditu

# Herri Gain elkartearen 25. urteurrena ospatzeko egitarau berezia antolatu dute

IKER BARANDIARAN

Altamirako bidean dagoen Herri Gain elkarteak 25 urte ditu. 110 bazkide dituen elkarteak kaletarrek zabaldu zuten arren, gaur egun Altamirako bazkideak ere baditu. Bihar eta etzi ekitaldi esanguratsuak antolatu dituzte elkartearen bertan.

Arrasateko lau koadrilak zabaldu zuten Herri Gain: pilotariak (Morras, Perikin, Loiti...), nafarrek (Nafarroa etorbidekoak), Paico koadrilakoek eta Zigorrolako Gallos koadrilakoek. Sasoi hartan Arrasaten bazkide gazteen zituen elkarte zabaldu zuten. Hasieran, Altamirako auzotarrak ez zegoen. Geroago, banaka batzuk bazkide egin dira. Hala ere, bazkide gehienak *kaletarrak* dira.

## BERMEA EMAN ZUTENEI OMENALDIA

Elkarteak erosi zutenean, lau koadrilotako partaideek dirua eskatu behar izan zuten. Dirua hiru herritarri eskatu zieten, eta orain omendu egingo dituzte. Honako hauek dira: Pablo Garai Peño, Enrike Landaluze eta Jose Maria Gallastegi (Jose Mari hilda dagoenez Anton semea joango da).

Bihar, zapatua, ekitaldi garrantzitsuenak izango dituzte: 11:00etan, San Juan Bautista elizan hildako bazkideen aldeko meza izango dute; 12:30ean, elkartearen lunch ofiziala egingo dute. SUDCeko arduradunek ere hartuko dute parte, eta abestu egingo dute; horren ondoren, Herri Gaingo batzar orokorra egingo dute; 14:30ean, osterara, bazkaria egingo dute eta bermea emandako bazkideak omenduko dituzte. Domekan, 08:30ean, txangoa egingo dute. Monterronen batu eta Kataideraino joango dira.



Argazkian, Herri Gain elkarteko inaugurazio ekitaldia.


## Aurretik ere ekintza mordoa egin dute

Herri Gain elkartearen 25. urteurrenako ekitaldi nagusiak bihar, zapatua, eta etzi, domeka, egingo dituzten arren, aurretik ere ekitaldiak izan dituzte.

Martxoaren 8an, elkarteko bazkideek eta euren emazteek 100 lagun guztira Saburdi catering enpresak eskainitako luncha izan zuten. Martxoaren 15ean, osterara, bazkideek Errioxara txangoa egin zuten. Badaran herrian hamarretakoa egin, buztzingintza enpresa bat ikusi, eta horren ondoren Fuenmayorrera joan

ziren; han bazkaldu egin zuten.

Joan den eguaztenean, hilaren 19an, osterara, elkartearen hiru gairen gaineko berbaldia izan zuten: Kataideko lagun batek txakolinaren gainean egin zuen berba; Pates Zubia enpresako arduradun batek patearen gaineko kontuak azaldu zizkien; eta, azkenik, Tomas Zubillaga arrasatearrak perretxikoen gaineko azalpenak eman zizkien. 25 urteotan egon diren presidentek eta egungo batzarrak antolatu dituzte ekitaldiak.




## 'Pangea' erakusketa Monterronen

Monterron jauregian *Pangea*, kontinenteen hondoetara bidaia izeneko erakusketa dago ikusgai. Joan den astelehenean ireki zuten eta martxo amaiera arte egongo da zabalik. Honako ordutegia izango du: 18:00etatik 20:00etara.

Erakusketak 2000n eta 2001ean munduko kontinenteetako lekuri sakonenetara egindako bidaian jasotako irudiak batzen ditu. Bederratz hilabete iraun zuen espedizioan 10 gipuzkoar eta bi nafar izan ziren. /A.B.

## LABUR



## Detritus taldearen 'Las punkis también lloran' antzezlan

Gaur, egubakoitza, Detritus Teatrus taldeak *Las punkis también lloran* antzezlan eskainiko du. 00:00etan izango da, Iamai kafetegian.

Detritus Teatrus taldea 1999an sortu zuten, Gasteizen, Belenek eta Maitek. Belenek eta Maitek aurretik ezagutzen zuten elkar, Gasteizko Antzerki Eskolan eta La Tirili antzerki taldean batera lan egin zutelako.

1999an, *De Tritus Corazon* lana estreinatu zuten. Bikoteen alde intimoak aztertu zituzten, umorearekin eta ikusleen parte-hartzearekin.

2000n, Maitek taldea utzi zuen eta Beleni Jabi batu zitzaion. Urte hartan, *Gu-gu chupete* lana estreinatu zuten. *Asexoria* baten lana azaltzen zuten. 2002an, osterara, *Las punkis también lloran* lana idatzi zuten. X belaunaldiko emakumeen mendekua da, punk musikarekin eta aurreko lanean baino amorrer handiagoarekin Belen La Xeta Paxote musika taldeko partaidea da.

## Arrasate Musikalek hainbat kontzertu antolatu ditu

Gaur, egubakoitza, Arrasate Musikaleko Big Band taldeak kontzertua emango du Gasteizen, Luis Aranburu Udako Musika Eskolan. Big Band taldeak kontzertu erdi emango du eta Luis Aranburu eskolako taldeak beste erdi. Horrez gainera, bi taldeek elkarrekin bi pieza interpretatuko dituzte. Arrasateko Big Band taldearen zuzendaria Iker Olazabal da, eta taldean honako instrumentuak egongo dira: tronpetak, tronboiak, saxofoiak, gitarra elektrikoak, baxuak, bateria, perkusioa eta pianoa, besteak beste.

Domekan, martxoaren 23an, Arrasate Musikaleko Txistulari Bandak eta Txistulari Gazte Taldeak kontzertua eskainiko dute Udaleko osoko bilkuren aretoan. 12:30ean izango da. Juan Karlos Larreategi da bi taldeon irakaslea.

**MUSIKA**/ Kultur Errotaren ekitaldien barruan, Bihar Berriz musika taldeak kontzertua emango du Arrasaten

# Zarauzko Bihar Berriz taldeak kontzertua emango du gaur Amaia antzokiko 'hall'-ean

IKER BARANDIARAN

AEDk eta Kultur Errotak beste emanaldi bat antolatu dute Arrasaten. Hala, gaur, egubakoitza, Zarauzko Bihar Berriz musika taldeak kontzertua emango du Amaia *hall*-ean. 22:30ean izango da eta euskarazko pop-rock doinuak entzun ahal izango ditugu.

AEDk eta Kultur Errotak musika ikuskizuna antolatu dute gaurko. Hala, gaur, egubakoitza, Zarauzko Bihar Berriz musika taldeak pop-rock kontzertua emango du Amaia antzokiko *hall*-ean. Emanaldia 22:30ean izango da eta euskarazko kantuak joko dituzte.

Bihar Berriz musika taldea 1995ean sortu zen. Aurretik, lagun talde batek tabernetako berriketaldi baten musika taldea osatzeko asmoaren gainean egin zuen berba. Eta 1995ean, Zarauzko Udalak Vista Alegreko entsegu lokaletan sartzeko aukera eskaini zien gazteoi.

Horrenbestez, entsegu lokala eskuratu bezain laster, taldea


lanean hasi zen. Hasieran, entseguak egubakoitzetan egiten zituzten. Baina, euren esanetan, hori ez zen oso erabaki ona izan.

## POP-ROCKA, ZENTZU ZABALEAN

Geroago, entseguak astelehenean egiten hasi ziren eta horiek emankorragoak izan ziren. Beste talde batzuen kantuak bakarrik jotzetik –Lenny Kravitz, Itoiz, Pearl Jam, AC/DC, Dire Straits...–, kantu propioak egitera pasatu ziren. Horrekin batera, kontzertuak ematen hasi ziren. Baina taldea bidea egiten hasi zenean, bi partaidek taldea utzi zuten.

Taldekide berriak aurkitu bezain pronto, lanean hasi ziren berriro, motibazio handiagoarekin. Euren kasa zortzi kantuko maketa grabatu zuten, taldea eza-gutzera emateko asmoz.

Gaur egun, taldea honako hauek osatzen dute: Pello (gitarra), Asti (ahotsa), Tuti (baxua), Gorka (bateria), Antxon (teklatura) eta Iñigo (gitarra). Orain dela gutxi, Bihar Berriz taldeak *Zarauzko Rock* bilduman *Paris* kantua grabatu zuen.



Argazkian, Zarauzko Bihar Berriz taldeak atera duen maketaren azala.

## HARMAILATIK...


# Kirola bizi izateko!

Astelehenero,  
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:  
**Julen Iriondo**

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**



E, TXO!

### TXATXILIPURDI, BEGIRALE BILA

Txatxilipurdi 2003ko udalekuen prestaketa lanetan hasi da, eta begirale izan gura dutenei dei egin die. Interesatuak curriculum-a, argazki bat, begirale titulua eta NAREN kopia aurkeztu beharko dute Txatxilipurdik Pablo Urangan duen egoitzan, apirilaren 16a baino lehenago. Bete beharreko baldintzak honako hauek dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen eragile formazio saioetara joatea. Informazio zabalagoa, 943 77 17 39 telefonoan (Jaione edo Itziar).

### LUDOTEKA IBILTARIA URIBARRIN

Bihar, zapatua, Ludoteka Ibiltaria egongo da Uribarriko Usaetxe plazan. 3 eta 12 urte arteko umeak jolastu ahal izango dira, 11:00etatik 13:30era bitartean. Txatxilipurdiko begiraleak ibiliko dira umeak eta gaztetxoak zaintzen.

### GAZTEMANIAK MAKETA LEHIAKETA

Apirilaren 30era arte dago zabalik lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Gipuzkoako musika talde eta bakarlari guztiek dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Informazio gehiago topatuko duzue [www.gaztemaniak.net](http://www.gaztemaniak.net) webgunean.

### ITZULPEN PRAKTIKAK EGITEKO BEKAK

Bi beka emango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, itzulpen praktikak egiteko aukera eskainiz. Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak egiten dihardutenek izango dute beka horiek lortzeko aukera. Informazio zabalagoa telefono zenbaki honetara deituta: 943 11 35 13.

## GUREGAIK/ GAZTEEN INTERNET ATARIA

# Gaztesarea kultura elkarteak egitasmo komunikatiboa egin du

IKER BARANDIARAN

Gaztesarea kultura elkarteak egitasmo komunikatibo garrantzitsua sortu du. Euskal Herriko gazteen Internet ataria abian jarri du, eta horren bitartez gazteen gaiak eztabaidatu eta bultzatu gura ditu.

Gaztesarea kultura elkarteak [gaztesarea.net](http://gaztesarea.net) izeneko Internet ataria abian jarri du. Elkarte hori Euskal Herriko bertsolari, idazle, antzezle, kazetari, sexologo, ikasle, langile eta bestelakoek sortu dute. Gaztesarearen helburua da gazteen artean hausnartu, eztabaidatu eta iritziak trukatzeko gunea eraikitzea, hain zuzen ere.

Elkarteak eman duen pauso

*Gazteen artean  
hausnartu,  
eztabaidatu eta  
iritziak trukatzeko  
gunea*

garrantzitsuen izan da Internet ataria sortzea.

### ALDIZKARIA ERE KALERATUKO DUTE

Internet atariak hainbat txoko ditu: Gozategik sexologia kontuak azalduko ditu; Arbelak ikasleendako txokoa da; Kalaportu guneak kultura espresioak lan-



ARRASATE PRESS

Gaztesareak antolatutako web atariak oso txoko interesgarriak ditu.

duko ditu; Gazte Kale eztabaidagunea da; eta azkenik, Musikale musikaren txokoa da. Hori guz-

tiori eta gehiago, [gaztesarea.net](http://gaztesarea.net)-en. Horrez gain, aldizkaria kaleratzeko asmoa dute.



### 'Larunblai', arrakastatsua

Joan den zapatuan, hilaren 14an, Txatxilipurdik *Larunblai* izeneko beste ekimen bat antolatu zuen. 11:00etatik 13:30era, *Globoflexia* lantegia antolatu zuten Herriko Plazan, eta ume eta gaztetxo mordo bat batu zen. Txatxilipurdiko begiraleen esanetan: "Inoiz baino ume gehiago batu zen, 80 baino gehiago". Eguraldi ona egiteak, plazan egiteak eta globoekin lan egiteak jende asko erakarri zituen.

Txatxilipurdik hilero antolatzen du *Larunblai*. Joan den zapatuan, globoei hainbat itxura eman zizkieten: loreak, txapelak, ezpatak, zakurrak, katuak, jirafak, eta abar... ikusi ahal izan genituen. Apirilaren 12an ere Herriko Plazan batuko dira, Atabal lantegia egiteko. Maiaztean, osteran, San Andresen egingo dute. /I.B.

## MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiako osagarriak

Zarugalde 38 • Tel.: 943 79 13 78

## Aretz

Taberna

Markole 5  
943 79 14 67  
ARETXABALETA

## Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10  
Tel.: 943 79 52 50

## LAKET

Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora z/g Behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

## Txitxinpe

Berezifasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

## BEHEKODENDATIK

## Espe Escobales

## ANES OIÑETAKO DENDAKUE

XABIER URZELAI

Espek komertzio askotan egin dau lan: kirol denda baten, optika baten, merkataritza-gune baten... Argi dau, hortaz, jentian aurrien lan egittera ohittute dauela. Espek oiñetako dendie zabaldu berri dau. Argi eukan oiñetako berezixek saldu gure euela: diseñodunek, eksklusibuek eta komoduek.

## Ametz bat?

Ametz gutxi eukitten dot.

Eta amets txar bat?

Gauzak mobidu egitten diela.

Egin dozun azken biajie?

Galziara.

Txartel horixe, zeïne?

Politikuei.

Eta gorrixe?

Horrei be.

Pelikula bat? Liburu bat?

## Musika talde bat?

*El hombre que nunca existió / La sensación de fluidez /* Musika lasaixe gustetan jat.

Drogak legalizauko zeuke?

Horrekin arazue konponduko balitz, bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Aukeran, txikiteue.

Ze dauketzu sobran?

Sinpletasune.

Eta faltan?

Indderra.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Herri irekixe dala.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeuke?

Auzuei kasu haundixague egingo neuskie; Makatzenari, adibidez.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Pakien alde egingo neuke lan.

Bizio bat?

Kafie, baiñe itxi egin dot.

Etxeko zapatillak ala zapatak?

Etxeko zapatillak.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?



X.U.

*“Alkate izengo banitz, herriko auzuek gehixago zaindduko neuke; Makatzena, adibidez”*

Neure gizona.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Brad Pitt.

Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeïnekin?

Ba, Brad Pittekin.

Bizi izetera hiri batera jutekotan, nora?

Hondartza eta eguraldi ona dauzen leku batera.

Telebisiñoko programa bat?

*Siete vidas.*

Eta irratikue?

Notiziak entzuten dittut.

Zertan gastauko zeuke dirue?

Biaje on baten.

Oin, botak gorde eta sandaliak atara biher, ala?

*“Anes zapata dendan zapata komode, eksklusibue eta diseñoduna topauko dozue”*

Bai, eta ordue da, gaiñera. Honekin eguraldionekin neguko zapatak gorde egin biher die.

Neguen ala udan saltzen dozue gehixago?

Dendie ointxe zabaldu dot; hortan, datorren urtien esango dutzut hori.

Nundik dator Anes izena?

An Andreatik dator, geure alabien izena da. Eta *Es* neure izenan hasierie da, Espe izenana.

Zapatak eroatera, hortan, ez daukogu zertan kanpora juen.

Hori argi dau. Denda honetan zapata komode, diseñodune eta eksklusibue topauko dozu, eta ez dau zertan kanpora juen. Hori zan neure helburuetako bat.

## NIREBIDAIAHURA/ Joxan García Zapiain

Afrikara / 2002ko martxotik irailera arte


Azken lau asteotan, Joxanek Afrikan bizi izandakoa kontatu dizuegu, eta bidaiaren amaiera kontatzeko ordua iritsi da. Lau asteotan, baina, ehunka pasarte utzi ditugu bidean, kontatu barik. Esango nuke sei hilabete horietan bizi izandakoarekin liburu bat egiteko nahiko material badagoela.

Joan den astean Zambian utzi genuen Joxan, tribu artean. Kenyarako bidean, Malawi eta Tanzania zeharkatu behar zituen. Malawin arazo handiak izan zituen, poliziekin, batez ere. Batetik, muga zeharkatzekoan poliziek dirua eskatu zioten, eta Joxanek ez zeukan ezer ordaintzeko asmorik. Muga gurutzatzeko, baina, ordaindu egin behar izan zuen, eta hura ez zen arazo bakarra izan. Autobusa hartu, eta konturatu zenerako mozkortuta zegoen beste polizia bat karguari etekina ateraruran zebilen. Ea nondik zetorren, zertan zebilen... Arazoak, azken baten. Joxanek argi zeukan polizia hura diru bila zebilela. Zortea lagun, autobusak koska batekin topo egin, eta polizia lurrera erori zen. Zeukan mozkorrarekin polizia luze geratu zen lurrean. Polizia esnatu zenerako lekutan zegoen Joxan:

“Ordura arte ikusi bako ustelkeria ikusi nuen Malawin Poliziekin kontuz ibili behar zen”.

Malawi polita bezain pobrea da; egun osoan jendea diru eske zebilen, eta azkenerako aspertu egin zen Joxan. Bidaiako azken lurraldeak, Tanzania eta Kenya, ez zitzaizkion horrenbeste gustatu: “Leku haietan turismo handia dago, eta jendeak turistaren dirua baino ez du gura. Horrelakotan, jendearekin duzun harremana ez da naturala izaten, badakizu-eta zeren atzetik dabiltzan”. Tanzaniako Seregeti parke naturalarekin liluratuta geratu zen Joxan: ikusgarria, Joxanen esanetan. Baina dagoeneko sei hilabete zentzutan etxetik kanpo, eta itzultzeko ordua zen. Arrasatera bueltatu zenean asko kostatu zitzaion lehengo bizimoduaren bueltatzea. Zarata handia, jendea presaka... Afrikako bizi-modua eta hemengoa... Mila esker, Joxan!

XABIER URZELAI



Joxan Monkey Bayn (Malawi), kanoarekin.



## Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?  
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.





ZAHARREN ETXETIK

# “Udalean bizi izan nuen une onena Ikurrina jarri genueneko izan zen”

IKER BARANDIARAN

**B**ixente Azkarate erretiratuta dago, baina ez da inoiz geldi egotekoa izan. Saltsa askotan sartuta ibili da, lan handia egin du beti eta gaur egun Santa Marinako elkarteko presidentea da.

## Noiz jaio zinen? Eta zelan bizi izan zenuen 36ko gerra?

1933an. Hamaika anai-arreba ginen. Ez daukat gerraren oroitzapenik, txikia nintzelako. Gurasoek, anaia batek eta laurok Oñatin pasatu genuen gerra.

## Zer moduzko haurtzaroa izan zenuen?

Ona, beste edozein umeren moduko haurtzaroa. 13 urterekin gaixotu egin nintzen, meningitis tuberkuloso hartu nuen eta oso txarto pasatu nuen. Hil egingo nintzela uste zuten, eta penizilina salbatu ninduen. Horren ondoren 14 hilabete pasatu nituen ohetik jaiki barik.

## Musika zure zaletasun nagusienetakoa izan da, ezta?

Bai. Aita eta bost anaia Arrasateko Musika Bandako partaide izan ginen. Horren aurretik, Gillermo Lasagabasterrekin solfeo ikasketak egin nituen. Jarraian, soldadutzara joan behar izan nuen eta han, soldadutzan, kontserbatorioko musika ikasketak egin nituen. Arrasateko Bandan tronpeta jotzen nuen eta soldadutzan, ostera, tronboia. Ezkondu nintzen arte ibili nintzen Arrasateko Musika Bandan.

## Arrasaten ezkondu zinen?

Bai. Iñaxi Lizarralde azkoitiarrarekin ezkondu nintzen, 1959an. Ferrerías kaleko 54.ean bizi ginen, 1964an etxea jausi egin zen arte. Emaztea, iloba eta semea etxean zeuden, baina eskerrak ez zitzaizela ezer gertatu. Udalaiz taberna gainera, koinatuarengana, joan ginen. Luzaroan emazteak eta biok Udalaiz tabernan egin genuen lan.

## Handik aurrera saltsa handiagotan sartu zinen...

Santa Marinara bizi izatera joan ginen eta 1968an auzo-alkate izendatu ninduten. Etxebizi-



Bixente Azkaratek lan handia egin du herrigintzan, baita auzoen alde ere.

ARTXIBOA

*“Santa Marinako auzotarrek lan handia egin zuten auzolanean: espaloiak...”*

tzak eraiki genituen, Santa Marina, Cristo Obrero eta Santa Teresa batu genituen... Santa Marinako auzotarrek lan handia egin zuten auzolanean: espaloiak, aparkalekuak...

### Udalean ere ibili zinen.

Ez naiz inoiz alderdi politikoetan afiliatuta egon, baina 1971n zinegotzi irten nintzen. Trantsizio garaia zela-eta, 8 urte egin nituen. Sasoi onak eta txarrak pasatu genituen, baina hunkigarriena Ikurrina jarri genueneko izan zen. 1977an Santa Marinako elkarteko presidente nintzen, eta han ere Ikurrina jarri

*“Emazteari behin eta berriro esan diot laster halako lanak egiteari utziko diodala”*

genuen. Arrasateko bigarren lekua izan zen.

### Elkarteetan eta hezkuntzan ere ibilia zara...

Bai, Santa Marinako elkarteak zabaldu genuen eta elkarteko presidente izan nintzen, baita auzoko zaharren elkartekoa ere. Horrez gain, Institutuko Guraso Elkarteko presidente eta Gipuzkoako Guraso Elkarteko presidente lanak ere egin nituen, bata bestearen atzetik. Gaur egun, Santa Marinako elkarteko presidente lanean nabil berriro. Emazteari esan diot laster halako lanak utzi egingo ditudala.

LABUR

## Apirilaren 12an, 1940an jaiotako emakumeek urteroko batzarra egingo dute

Apirilaren 12an, 1940an jaiotako emakumeek urteroko batzarra egingo dute. 13:00etan meza izango dute San Juan Bautista elizan. Mezaren ondoren bazkaria egingo dute Musakola Hostalean. Interesatuak apirilaren 5a baino lehenago eman behar dute izena. Horretarako, Hire liburu dendara edo Begoña lurrindegira jo besterik ez dago, eta 15 euro ordaindu.

## Karta-joko txapelketak, berbaldia eta txangoa antolatu dituzte Uribarrin

Uribarriko erretiratuen elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunetarako. Martxoaren 25ean, 26an eta 27an, tute eta briska txapelketak egingo dituzte. Apirilaren 2an, *Estresa eta horren ondorioak osasunean* leloa duen berbaldia egingo dute. Apirilaren 29rako, ostera, Bermeora txangoa antolatu dute. Txangora joan gura izanez gero, 19 euro ordaindu beharko dira.



## 1937ko kintoek egun handia ospatu zuten

Joan den zapatuan, hilaren 15an, 1937ko kintoek egun handia ospatu zuten. Eguerdian, hildakoen aldeko meza izan zuten San Juan Bautista elizan. Aurten, 34 lagun batu dira. Horietatik bi Aretxabaletan bizi dira, bat Gasteizen eta gainerakoak Arrasaten. Mezaren ostean txikiteoa egin zuten eta horren ondoren Musakola Hostalera joan ziren bazkaltzera.

Denetarik jan zuten eta oso goxoa zegoela esan digute. Giroa ere apartekoa izan zen, eta ia bazkari osoan kantuan ibili ziren 1937ko kintoak. 2004an ere ez dute kalerik egingo, ziur. //B.

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerías 23 ¤ ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

**MUXIBAR**

Bizkaia etorbidea 1 Tel.: 943 79 11 25

Martxoaren 24tik  
apirilaren 1era itxi egingo dugu.

**AURRERA EGUNKARIA!**



ARRASATE  
**Eufemia Martín**  
Martxoaren 20an, urtebetzea. Zorionak! Familia-koen partetik.



ARRASATE  
**Josu Arkauz**  
Martxoaren 12an, 16 urte. Zorionak! Vanessaren partetik.



ARRASATE  
**Ane Etxebarria**  
Martxoaren 14an, 12 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Nerea Jodar**  
Martxoaren 18an, 17 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Xabi Arrizabalaga**  
Martxoaren 22an, 9 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Maddalen Martínez**  
Martxoaren 20an, 12 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARETXABALETA  
**Iratzeder Iturri**  
Martxoaren 21ean, 24 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Haizea Fernández**  
Martxoaren 21ean, 9 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Joxe Agirre**  
Martxoaren 26an, urtebetzea. Zorionak! *Press*-ko eta okindegiko lagunak.



ARRASATE  
**Tomas Uranga**  
Martxoaren 12an, 83 urte. Zorionak! Etxekoan partetik. Asko maite zaitugu.



ARRASATE  
**Ania Gartzia**  
Martxoaren 24an, 5 urte. Zorionak, maitea! Maite zaitugunok.



ARRASATE  
**Asier Egidazu**  
Martxoaren 22an, 26 urte. Zorionak! TMT.



ARRASATE  
**Haritz Gantxegi**  
Martxoaren 24an, 25 urte. Zorionak! TMT.



ARRASATE  
**Garikoitz Heriz**  
Martxoaren 21ean, 24 urte. Urte askotarako! *La Jenny* eta *La Vanessa*.



ARRASATE  
**Ainhoa Errasti**  
Martxoaren 23an, 9 urte. Zorionak! Gurasoak, Ane, Txomin eta Arantza.



ARRASATE  
**Jose Urresti**  
Martxoaren 21ean, urtebetzea. Zorionak! Etxetikojatetxea.



ARRASATE  
**Roberto Frutos**  
Martxoaren 26an, 23 urte. Zorionak! *Txalao* eta Nuria.

**Adi!** Argazkiak emateko lekua:  
**Arrasate:**  
ARRASATE PRESS  
Otalora Lizentziaduna 31.



# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitzu ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

## EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zeren eskultura dago Garagartzako plazatxoan?  
Arrastoa: adituen esanetan, Gipuzkoako plazarik politenetakoa da.

**Super BM** IFA

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!



ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Cuetara Tosta Rica**  
800 g-ko kaxa

**1,46€** 243pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

### AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**AMETS ETA IBAI ORMAETXEA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Amets eta Ibai!  
Galderen erantzun zuzena:

**Musakolan.**

## ARRASATEKO HISTORIA

### Juan Bautista Azkarate 'Mondragonés'

JON ANDER RAMOS

Arrasaten jaio zen, 1891ko ekainaren 24an. Umetatik hasi zen pilotan jokatzeko. Eta Donostian eginkizun militarrek betetzen zebilela jokatu zuen aurreneko partidu profesionala.

Haren ibilbidea oso azkarra izan zen, *meteoro* baten moduan agertu zen; izugarri bizkor zabaldu zen haren garaipenen eta ospearen berri.

Hogeita hamar urtez ibili zen pilotan, eta horietatik hamar urte baino gehiagoz nagusitu zen txapeldunaren tronuan. *Mondragonés* izan zen plaza librean gehien jokatu zuena.

1917an, Espainiako txapeldun titulua eskuratu zuen lehenengo aldiz, *Zapaterito* pilotari ezagunarekin buruz buru, Eibarko Astelena pilotalekuan.

Baina berehala aurkari gogorra agertu zitzaion *Mondragonés*-i: Atano III.a.

Partidu ikusgarriak jokatu zituen haren kontra, lehena Logroñon. Hain justu ere, azkoitiarrak kendu zuen arrasatearra tronutik, 1927an.


*1917an, Espainiako txapeldun titulua eskuratu zuen Eibarko Astelena pilotalekuan*

*Juan Bautista Azkarate pisu handiko pilotaria izan zen Euskal Herrian*

Hiru partidutara jokatu zuten (Donostian, Eibarren eta Bilbon), eta hirurak irabazi zituen Azkoitiko pilotariak.

Ordura arte *Azkoitiko Txikito* eta gero *Mondragonés* izan baziren pilotan nagusi, handik aurrera beste txapeldun bat agertu zen: Atano III.a, alegia.

Edozelan ere, *Mondragonés*-ek partidu ikusgarri ugari



ARTXIBOA

Juan Bautista Azkarate *Mondragonés*-ek jokatu zuen gehien plaza librean.

jokatu zituen, 1942an erretiratu zen arte. Izan ere, pilotalekutan beti utzi zuen bere kalitatearen lekukotasuna.

Juan Bautista Azkarate *Mondragonés* pisu handiko

pilotaria izan zen, bai Arrasaterako baita Euskal Herri osorako ere. Gaitza izango da horrelako gizon bat ahaztea.

Arrasaten hil zen *Mondragonés*, 73 urterekin. Euskal

Herri osoan igarri zen haren heriotza. Eibarren pilotariak dolu-xingolekin jokatu zuten. Eta bestelako pilotariak ere zelanbait gogoratu zuten arrasatearra.

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko martxoaren 21a / 58. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## KZGunea zabalduko dute maiatzean kultura etxean

UBANE MADERA


**Maiatzaren erdialdetik aurrera KZGunea izango da Aramaion, gainerako herri gehienetan moduan. Zortzi ordenagailu izango ditu, guztiak Internetera konektatuta. Izan ere, KZGunearen helburua da aramaioarrek Internet erabiltzea. Horretarako, erabiltzen erakusteko eskolak emango dituzte.**

Eusko Jaurlaritzatik bideratutako proiektua da KZGunea. Esan bezala, ahalik eta jende gehienak Internet erabiltzen ikasteko eta erabiltzeko. Hortaz, edozeinek parte hartu ahal izango du KZGunean emango dituzten ikastarotan, baina bereziki, etxeoandreei, erretiratuei, langabeei, etorkinei eta ikasleei zuzenduta dago; betiere, 18 urtetik gorakak badira. Kontua da jende talde

horiek direla Internet erabiltzeko erraztasun txikiagoak dituztenak.

Horrela, KZGunean egingo duten lehenengo gauza Internet erabiltzen erakusteko eskolak ematea izango da. Bi hilabetez ibiliko dira eskolak ematen, egunero pare bat orduz. Eta horretarako zortzi ordenagailu ipiniko dituzte. Baita monitorea ere. Behin eskolak bukatutakoan, hiru ordenagailu geratuko dira Aramaio-ko KZGunean, jendeak egunero erabil ditzan; adibidez, norberaren posta elektronikoa begiratzeko. Eta monitorea edo begiralea egongo da, jendeari laguntzeko. KZGunearen erabiltzaile izateko izena eman beharra dago. Behin izena emanda, pertsona horrek Euskal Herriko edozein KZGune erabili ahal izango du. Edozelan ere, Aramaioa oraindik ez dira iritsi izena emateko orriak. Iritsi bezain laster jakinaraziko dizuegu.

Kultura etxean ipiniko dute KZGunea, liburutegiaren ondoan. Maiatzaren erdialde inguruan zabaltzeko asmoa dute, guztia gertu egonez gero. KZGunearen zerbitzu guztiak doan izango dira.



UBANE MADERA

Sexua, indarkeria... erakusten dituzten guneak debekatuta egongo dira KZGunean.

## Margo erakusketa eta salmenta eta kontzertua

Anboto tabernakoek ez dute ez atsedunik hartzen, eta oraingo asteburuan kontzertua antolatuta dute.

Oraingo honetan bihar, zapatua, izango da, musika taldeak ezin duelako barikuan jo. Hain justu ere, Once Varas izeneko taldeak jardungo du, 22:30ean. Gasteiztik datorren laukotea da, eta, bereziki, rumba estiloko musika egiten du. Azaroan diskoa grabatu zuten, eta, batez ere hori aurkeztuko dute Anboto tabernan.

### ERAKUSKETA


Eta ez hori bakarrik. Artelanak ikusteko aukera eskaintzen dute Anboto tabernan. Orain, Juan González Cuesta margolari bergararrak egindako lanak daude ikusgai; eta gura duenarendako, baita salgai ere. Batez ere, pai-

saien eta natura hilen margo-lanak aukeratu ditu bergararrak Aramaion erakusteko. Guztira zortzi lan ipini ditu.

Orain dela 12 urte hasi zen margotzen Juan González Cuesta. Ordutik hona, besteak beste, Bergaran margo lehiaketa irabazi du. Eta erakusketa dezente egin ditu, bai Bergaran baita Arrasaten ere.

### HURRENGOAN BESTE BAT

Martxoaren bukaerara arte izango da bergararraren erakusketa Anboton. Gero, apirillean erakusketa aldatu egingo dute eta beste norbaiti emango diote aukera hori. Hain justu, hori da eta Anboto tabernakoen helburua: jeneralean aukerarik ez duenari bere lanak erakusteko aukera ematea.



UBANE MADERA

Bereziki, paisaiak eta natura hilak daude ikusgai Anboto tabernan.



## Gazteen abesbatza jendea pozik

Nagusien taldeaz gain, gazteen abesbatza ere sortu da herrian; joan den astean eman genizuen horren berri, eta orain, taldea bera aurkeztuko dugu. Oraindik ez du izenik; hori bai, Pagargorri berbari bueltak ematen dabilta. Barikuetan elkartzeko dira, kultura etxean. Eta esan beharra dago oso giro polita sortu dela taldean. Joan den asteko elkarrizketan erakutsi genuen irakaslea bera ere ez dela edozelakoa. Hortaz, ekimen interesgarria izan daiteke herriko gazteendako. Interesa dutenak (OHoko 4. mailatik gora) kultura etxean ager daitezela, barikuan, 19:00etan.

## LABUR

### Lizarrak sartuko dituzte Zuhaitz Egunean

Gogoratu beharra dago datorren astean izango dela Zuhaitz Eguna Aramaion. Hain justu, eguaztenean ospatuko dute, hilaren 26an, moduan, San Kristobal moduan joango dira, eta hain justu eskuetan hartu eta 30 bat minutu landatuko dituzte.

San Martin Eskolako 4. urteko umek sartuko dituzte zuhaitzak; 6 eta 12 urte bitarteko umek, hain zuzen ere.

Zuhaitz Egunaren helburua, besteak beste, gure zuhaitzen bizi iraupena ziurtatzea da; bereziki, gero eta urriagoak diren zuhaitzena; kasu honetan, lizarrena.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Osasun etxea (txandak) . . . . .	945 44 53 40
Botika . . . . .	945 44 50 03
Udaletxea . . . . .	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) . . . . .	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) . . . . .	945 45 52 52
San Martin Eskola . . . . .	945 44 50 04
Taxia eta autobusak . . . . .	945 44 50 33
Udal kiroldegia . . . . .	945 44 53 35
Postetxea . . . . .	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea . . . . .	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) . . . . .	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

## OHARRAK

### 'EGUNKARIA'-REN ALDE

Euskal Herriko Mendi Federazioak egindako deiarekin bat eginez, Besaidera mendi-irteera izango da Aramaiotik etzi, domeka. *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko mendi irteera da, mendizaleen eta mendi-taldean atxikimendua eta elkartasuna erakusteko. Hitzordua 12:00etan da, Besaideko zelaietan. Han ekitaldi xume bat egin, eta salda eta jatekoa emango diete parte-hartzaileei. Aramaiotik 10:00etan irteerako asmoa dute antolatzailleek, Orixol elkarteak. Parte hartu gura duenak plazan agertu besterik ez du.

### OSOKO BILKURA

Datorren eguaztanean martxoko osoko bilkura egingo dute. Landuko dituzten gaien artean, kontu hartzaile berria aurkeztuko dute; 36ko gerran fusilatutako gaineko mozioa landuko dute; zenbait dirulaguntza eskatzea aztertuko dute, baita sahararrak ekartzea ere.

### ZINEMA


*Jimmy Neutrón: el niño inventor* filma emango dute.

## KIROLA

### Datozen hiru hilabeteotarako kantxaren erabilera zozketatuko dute

Datorren eguenean, hilak 27, kiroldegiko kantxa erabiltzeko zozketa egingo dute, 19:30ean, kiroldegiko kafetegian. Hortaz, kantxa erabili gura dutenak joan behar dira batzar horretara. Hori bai, herriko kirol taldeek eta multi-kirola egiten dutenek ez dute zozketan parte hartuko, euren dako kantxa orduak urte osorako hartuta dituzte-eta. Apirilera, maiatzerako eta ekainerako kantxa-orduak zozketatuko dituzte. Astean orduak erabiltzeko. Prezioak kantxaren erabileraren arabera dira. Adibidez, kantxa erdi hartuz gero, Aramaiokoen 3,75 euro ordaindu behar dituzte eta kanpokoek, 4,40 euro. Eta kantxa osoa hartuz gero, Aramaiokoen 5 euro ordaindu behar dituzte eta kanpokoek, 9,40 euro. Horrez gain, argia eta dutxak aparte ordaindu behar dira.

Pilotan, areto futboleko, saskibaloian, eskubaloian eta boleiboleko egiteko aukera dago



## KIROLETAKO EMAITZAK

### Areto futboleko eta paleta txapelketetako asteroko emaitzak

Joan den asteko emaitzen kontrakoak ekarri dituzte oraingoan areto futboleko taldeek. Gazteen taldeak 1-5 galdu zuen Izarra Gorriren kontra; kadete mailako mutilak 13-3 galdu zuten Baro-Caloren kontra; eta neskek 4-2 galdu zuten Jesus Obreroren kontra.

Oraingo asteburuan, bihar, zapatua, jokatuko dituzte partidu guztiak. Gazte mailakoek 11:15ean dute hitzordua, Aguraingo kiroldegian, Oriamendi Lezaoren kontra; kadeteek 10:30ean dute partidua Jesus Obreroren kontra; eta neskek 11:30ean, Atletiko Santa Mariaren kontra.

Paleta Txapelketari dagokionez, Pérez-Urra bikoteak 35-32 irabazi zion Barandiaran I.a-Oianguren bikoteari eta Arriolabengoa I.a-Azurmendik 35-34 irabazi zioten Garaita-Flores bikoteari. Domekan jokatuko dituzte hurrengo partiduak (bikote berek); lehenengoa 09:00etan izango da eta bestea, 10:00etan.

## BOTE PRONTOAN / Exabier Fernández Hormaetxe · Mondragon Unibertsitateko ikaslea

### “Egiteko ohitura hartzea da garrantzitsua; eginez gero igartzen da, bestela pilatzen doa dena”


Zornotzarra da oraingo aste-ko gure berba-laguna. Exabier Fernández Hormaetxe du izena eta Aramaioko udal-tertxean praktikak egiten dabil. Otsailaren erdialdean hasi zen eta maiatzerako ekainera arte segituko du jardunean:

**Zelan etorri zara Aramaiora?** 5S izeneko proiektua egitera (garbiketa eta ordena).

**Zer da hori?** Kalitatea lortzeko tresna bat. 5S deitzen da; bost berba japoniarren siglak dira S horiek. Ez dakit japonieraz zer esan gura duten S horiek, baina euskaraz honela esango genuke: aukeraketa-antolakuntza, estandarizazioa, garbiketa, ordena eta diziplina. Baina *diziplina* berba apurtxo bat militarra da, eta guk *ohitura* esaten diogu.

**Hortaz, praktiketan-edo zaude Aramaion?**

Proiektu labur bat egiten nabil. Hori egin ostean ikasten segituko dut, ikasketen goi maila egiteko: Ingeniaritza, Mondragon Unibertsitatean. **Zer egin behar duzu 5S horiek ezartzea lortzeko?** Pertsona bakoitzarekin egoten naiz. Orain lehenengo atalean gaude: aukeraketa eta antolaketan egiten. Zerk balio duen eta



zer bota behar den ikusten gabiltza, apur bat antolatzen. Eta, horretarako pertsona bakoitzarekin egon behar dut, zer erabiltzen duen ikusteko, materiala sailkatzeko... Orain, hemen, biltegian nago, zer den baliokoa eta zer ez aukeratu, hain zuzen ere.

**Hortaz, ez zabilta udaletxeko bulegoetan bakarrik?**

Udaletxean eta biltegietan nabil. Dena dela, udaletxean lan egitea gaitzagoa da; izan ere, biltegi baten segituan ikusten da zer dagoen soberan eta zer ez; udaletxean paper asko urtetan gorde egin behar izaten dira...

**Zure lanaren emaitzek eragina izango dute Udalak ematen duen zerbitzuan?**

Biltegietan-eta ez; baina Udalean akaso bai. 5S sistema udaletxe barruko langileendako

da; hortaz, eurak hobeto badabilta, kanpoan ere igarriko dute. Adibidez, zerbait bilatzen hasi eta azkarrago aurkituko dute 5S sistema ezarritako gero.

**Enpresa askotan ezartzen dute horrelakorik?**

Bai, Mondragon Taldean barruko enpresa guztietan ezartzen dabilta. Eta bestelako enpresa motetan ez dakit. Askotan, adibidez, ez dute horrelakorik ezartzeko astirik.

**Baina, zure iritziz, inportantea da horrelako zerbait egitea?**

Nire iritziz bai. Jeneralean enpresetan egiten da, ez Udaletan. Baina hemengo alkatea enpresa baten dabil lanean, eta han 5S sistema erabiltzen dutelako ekarri du hona.

**Nork bere bizimoduan ere ezar lezake horrelako sistemarik? Eman egiguzu gomendioren bat...**

Gaitza da. Nik, adibidez, etxean logela hankaz gora daukat. (Barreak). Egiteko ohitura hartzea da garrantzitsua. Normalean eginez gero, igartzen da. Sekula ez bada egiten, pilatzen eta pilatzen doa dena. **Aramaion gustura zabilta?** Bai, bai, gustura nabil hemen. Herri polita da.

“Kalitatea lortzeko tresna da ‘5S’. Bost berba japoniarren siglak dira ‘S’ horiek”

“Udaletxe barruko langileendako da; eurak hobeto badabilta, kanpoan ere igarriko dute”

ERRETRATUZAHARRA

## Garagartza auzoko San Migel jaietakoa

**O**rain dela 50 bat urteko Garagartzako irudia ekarri dugu oraingo astean, zeuok ikusteko. San Migeletan aterata dago, auzoko jaietan. Ikusten duzuen, mahaiaren bueltan elkartu ziren auzotarrak jaiak ospatzeko. Eta badirudi, gainera, sekulako giro ona izan zutela. Gure berriemaileak kontatu digunez, argazkia ateratzeko mozolokeriak egiten zituzten eta, jakina, guri utzitako argazkian ere horretan dabilta.

Argazkian honakoak agertzen dira, eskumatik hasita: Jesus Berezibar Lazaruena, Tomas Uranga (ordularia duena), Agapito Barrutikoa (dantza egiten dabilena) eta Txatua (atzeatzeko burusoiltzua). Atzean

segituz, mahaian eserita dagoena Eusebio Etxebarrikoa da, gorbataduna Hermoxo, tente dagoena Paloma eta bizkarrez dagoena Txomin Aurreko da. Mutikoen artean, ezkerrekoa Iñaki Aranbarri izan daitekeela uste du gure berriemaileak (gainerakoak ezezagunak dira). Eta euren ondoan dagoen gizonezkoa Rubio da.

Jendearen atzean ikusten diren baserriak, berriz, Antena eta Perikona dira. Gaur egun oraindik existitzen dira baserri horiek, baina oso itxura desberdinarekin. Plaza bera ere oso desberdin dago, ikusten duzuen bezala.

Argazkia: Akixo  
Informazioa: Akixo  
Urtea: 1951



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Seber Altube, arkupetik ikusita

**A**rgazki zahar asko esku artera iristen zaizkigunean, zein urtekoa diren asmatzen nahiko lan izaten dugu. Ondoko argazki zaharra ez dakigu zehatz-mehatz noizkoa den, eta horrelakoetan, gure laguntzaileek erreferentziak ematen dizkigute. Argazki biak San Frantzisko elizako arkupetik daude aterata. Argazki zaharrean lehengo azoka plaza ikusten da.



≈ 1964 Seber Altuben zegoen azoka plaza 1972ko ekainean bota zuten. Vespino motoa eta Seiscientos autoa ere ikusten dira argazkian.



2003 Garai hartan Seber Altuben errepidea zegoen eta Garibaiko dorrea egin barik zegoen. Gaur egun autoak ezin dira Seber Altubera sartu.

# BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua:  
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

## ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

## "PAL"

Burdindegia

Brikolajea

Tresneria

Uribarri etorbidea 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE



PROFESIONAL

*liberalen*

GIDA

## AHOLKULARITZA

### ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate  
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asejim.com

### ASESORIA ARRASATE

Erdiko kalea 32, 1. Arrasate  
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00  
asesoriaarrasate@telefonica.net

### EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate  
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26  
emun@emun.com

### GERTU AHOLKULARIAK

Otalora 38 B. Arrasate  
Tel. 943 79 94 21 Faxa: 943 79 86 44  
gertu@conet.es

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartera, esk. Arrasate  
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgoe@euskalnet.net

## ABOKATUAK

### LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate  
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08  
altu-lasa@conet.es

## APAREJADOREAK

### JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea  
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09  
zutarri@infonegocio.com

# Etxeko konponketak

## Elektrizitatea

**ARANZABAL**

**KOOP. E.**

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Igeltsaritza



**Izcue Irurzun**

Igeltsaritza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Leihoak



**ARGI PLASTIK**

PVC, aluminio termiko  
eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.  
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18



**RRASATE**

**Elektrizitatea**

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

**24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77**

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

## Iturgintza

**Aretxabaleta**

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)  
Tel.: 943 79 17 53



**ION LEIHOAK**

PVC • Aluminioa RPT  
Poliuretanoa • Bitarikoak

**Ateak • Zoluak**

Kanpantorpea, 2-behea • **ARRASATE**  
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

## Margoak

**APAIN**

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



Loramendi 7, 2 behea  
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak  
Gasa • Berogailuak**

**Jovi**

**10.000 KOLORETA KO MENUA**

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

## Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak  
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1  
Tel./Fax: 943 79 76 03

## Eraikuntzak

**Berecibar**

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

**Txorrota**

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Gida honetan azaldu nahi  
baduzu, deitu  
943 71 23 91  
telefonora